

Eusko  
Olerkiak

POESIAS VASCAS

1932

III

Erkartzainak



# Euskaltzaleak'en idaztiak

## ANTZERTIA

Bost-Urtian

Alzaga'tar Toribi.

Ostegun-Gizena

Labayen'dar Andoni.

Sorgiñak

Barbier - Lekuona ' tar  
Imanol.

Egiazko Jainkoa.—X.

## OLERTIA

Eusko Olerkiak

I.—Érenderi'ko olerti-  
gudua. 1930.

Eusko Olerkiak

II.—Tolosa'ko olerti-  
gudua. 1931.

Eusko Olerkiak

III.—Ermani'ko olerti-  
gudua. 1932.

Eusko Olerkiak

IV.—Urétxua'ko oler-  
ti-gudua. 1933.  
(Argitaratzeko).

## EUSKAL EKINTZA

La Muerte del Euskera

Aitzol'dar J.

Lucha de idiomas

El problema escolar  
bilingüe en Euzkadi.






*BEDOÑA'TAR JOKIN ABA*  
*«Loramendi»*

*Ernani'ko Eusko-olerti jaietan saritutako*  
*olerkaria 1932.*

*P. JOAQUIN DE BEDOÑA*  
*«Loramendi»*

*Premiado en la Fiesta de la Poesía Vasca*  
*de Ernani.*











# EUSKO OLERKIAK

**Ernani'ko Olerti Jaietarako  
eratu zan olerti gudara  
bidaldutakoenatatik autuak**

**1932**

Aitzol'dar J'ren  
ITZAURĒA

III'GARENA

« EUSKALTZALEAK »

Gipuzkoa Aldundegiko jauregian. Donostía.



R. 2900  
N.M. 2813  
R. 34756

ATU  
3282

# POESIAS VASCAS

Selección de las remitidas al certamen  
poético organizado con motivo del

**Día de la Poesía Vasca de Hernani**

**1932**

PROLOGO DE

J. de Aitzol

TOMO III

« EUSKALTZALEAK »

Palacio de la Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián.





# AURE-ITZA

ARANA'TAR YON

«BEDOÑA'TAR YOKIN»

«LORAMENDI» OLERKARIA»

*Yoan zitzaigun «Lizardi»-Agiñe'tar Yoseba Mirena; ta bestek bete eziñeko utsunea utzi zigun Eusko-Eler-tian olerkari bikain gurenak. Beste bat eraman digu orain beriz Yaungoikoa<sup>k</sup>, bikaiña au ere ta gazterik, munduan Arana'tar Yon, lekaidetzan Bedoña'tar Yo-kin eta eusko-olerti-sailean «Loramendi» izen ederez ezagun genuen buruñurdun ikaslea.*

*«Lizardi» zanaren eriotzak euskal-poesi-elertiaren-tzako zekartzan ondoren beltzak ez al genituen ongi neurtu oraindiko, ona orain beriz, andik egun gutxira, gauerdian, dakarkiguten berri samiña. Beste lagun aundi bat il, euskal-olertiko izar berri bat itzali. Epai-laren 24'an, «Lizardi» il eta amabigaren egunean, il Donostia'n, apaiz egiteko egun-egunetan «Loramendi» gure olerkaria.*

*Bi zorigaitz auek gogoratzean, biak ere gure piz-kunderako ez bait-dira galera makalak, «Loramendi»<sup>k</sup>*



*bere lagun kutun baten eriotzaz idaztitako neurtitz xamuñak datortzkit burura:*

*«Il intzan, il i ere...! Eraman induten...  
Ire itzalak, ordea, ni baitan dik lurmen...*

*Eta abia bai intzan  
laño ta eurite...  
Beste alde ortan  
ba-al duk aterpe?...*

*.....*

*«Te aingeru batek itaz bai zidak gaur esan  
nigandik aldatzean noruntza yo uan...*

*Otoi, adiskide,  
otoi, nere alde...!»*

*Il zan «Lizardi», bere lagun «Loramendi» ere il; ta Donostiako ileñian eortzi dute ixil-ixilik. Baña aren izena ez da ilko; euskaldun eleeder-zaleak maiteki gordeko ditue beti aren olermen argiak eusko-olertian sortu dituan lore goiztar pinpinak.*

*Euskel-pizkunde-bideetan abia ta beste gabe il zaigu; bizitza-arloa berak landu ta zaitu-beañoeko lore-baratza zabal bezela begiz yo ta beste gabe. «Loramendi» yañi zion bere buruari olerkariak izena. Nonbait eder-loreak emateko lur gizena nabaitzen barnean; eta izuntza maitea an bizimin biotz-irudimenen ernarazle.*

*Aingeru-antzo il zaigu, bare, iripañoez, ia iñolako miñikan gabe. Aita senide, lekaideak inguruan. Itamu gozoan biotzetiko zerura-nai bizia besterik ez du*



aitatzen: «Zerura nijoia; zerutik lagunduko dizutet; zuei, euskerari, aberiari ..»

Azkenengoz alta besarkatzean, amarentzat esaten dio, aŕen, ez egiteko negarik, zerura diola-ta. Zeruko Amaz ditu azken-itzak: «Ama Maria'tzaz itz egin nekerik gabe». «Lizardi» bezela, mingañean siñismen-itzak dituala il da euskeraz mintzatzen, ain maite izan zuten euskera kutunez.

### Nekazari, lekaide ta olerkari

Leintz-ibaŕeko Bedoña erixkan yaioa zan 1907'gnko ilbeltzaren 27'an Mendibitsu baseŕian. «Loramendi» ren yaiotetxe-ondoan antxe da «Artazubiaga»: ango yatorikoa zan A. Bañez Artazubiaga'taŕa, tomista urtiztilari ospatsua, Santa Teresa'ren zuzentzale izana.

Baseŕitar txikiak bizi oi diran bezela bizi izan zan mendigain aietan gure olerkaritzako mutikoa. Etxeko beiak zaitu, urutiko basora garapaitara yoan diran gizonai bazkaria eraman, goizean goiz Aŕasate'ra, astotxoa auŕean-ta, esnea eratsi, ta... etxean beste lanik ez zanean, Don Permin eriko apaiz jaunaren ikastolara irakurtzen-eta ikastera.

Bazioan bein batean pitxaŕa artuta itufira. Ontzia betetzen ari zala, praile bizar-luze bat bidean gora. Mutiko-bila zebilŕen berakin Altsatsu'ra praile eramateko. Bi laguntxo bazijoazen.



*Mendibitsu'ko mutiko pizkoñari biotzera itz egin bear izan zion Aita bizarluzeak; beintzat bertatik erabaki zuan: praile bear zuan Juan'txok. Eta dei xalo oñi, Yosu Yaunak bere ikasleai egindakoaren kideko dei oñi zintzo erantzun izan zion beti, zintzotasunik zeatzenaz.*

*Gogoñak eta latzak izan bear nai-ta-nai-ez arentzat Altsatxu'ko ikasketak lenen-aldian. Ez zekian erderaz eta eragozpen izugarri zuan ori asierarako. Buru argi-koa zan ordea ta bereala erdera ikasi al izan zuan eta aren bitartez ederki egin zan latera ta gerkeraren yabe. Eta erdel-izkuntzetan buruz-buru sarturik, euskera utzi ta azkenerako aztu ere egin zitzaion. Bein batean anaia etoñi zitzaion komentura. Erderarik ez zekian eta «Loramendi»'k iñondik ere erderaz itz egin bear tutik ez zekian anaiarekin. Ainbesteraño zegoen aldi artan erdaldundua.*

*Bereala zuan ordea bidea zuzendu, ta ekin zuan oldartsu aberi-elea ikasten eta bai sakonki ikasi ere. Bere naitara menderatzen eta biurtzen zuan eta irudimen bizi-beroak sortzen zizkion-burubiderik bikaiñenak naiz amets irudirik apain-ugasiñenak antxe erabiltzen ete bere gogara ederki yazten.*

*1924'gnean asi zan olerki-lanetan. Olerkiak, buruñurdunen euskal aldizkingi aipagarri «Zeruko Argia» delakora bialtzen zituan eta antxe argitaratzen Euskaltzaindi'ko Intza'r Damas Aitak, aldizkingiaren sortzale ta zuzentzaile zegoen idazle ta iztun ospat-*



suak; andixek poztu ta adoretu izan zuan berberak beste olerkari ezagun bat ere; Yauregi'tar Koldobita.

Sankozako lekaidetxean ikasle zala «Stabat Mater» itzuli zuan. Aiexek zituan bere lenengo neurtitzak. Gerokoan, 1927'n Ondaribi'n filosofi-ikasketaroan, an ari izan zan neurtizketan eta neurtizketan. Lenbiziko olerkiak, asiberiarenak izaki, ezagun dute: utxak dira. Neurtizketa-saio aietatik ez ondorengo olerkietatik ez dezake inork usnatu ainbateko olerkaria aterako zanik.

«Loramendi»ren olermena, olertirako gaitasuna ez deritzat bat-batera agertu zanik; bere lantxoai yarañaituz baldin ba-goaz beintzat, ala dakusagu. Izkera ta neurtizkera oraztuago ta apainduagotuz, olerkari-argia ere piztutzen eta indartzen zioakiola dirudi.

Aren neurtitzetan nabari dezun yareitasun eta etorietaza bera dago esaten neurtizketan luzaro yarduna zana, ekiñaren ekiñaz izan ezik ez bait-da olako ezeztasunik irixten. Eta izan ere, aldi batez itz-neurketan egunero aritzen omen zan, eta, yakiña, saiaketa oren bidez idazteko ezeztasun aundia iritxi ba zuan ere, gaiak aukeratzeari ez bait-zion ia begiratzen, ez zuen aldi artan aoa olerki gurenatarako bat ere xuritu.

«Zeruko Argia»n argitara emandako olerkiak irakurtzen ba-ditugu, ta onentxoena an argitaratzen bide zituan, ez degu esango geientsuenatatik beintzat olerkari-izen aundirik yaso zezakenik. Geienak, neur-



titzetan ongi ebakiak bai, baño aultxeak, aukeraga-beak, mami moteldunak dira, ez olerkari eldu arenak. Ba ditu orátik bizpairu edeñak; oietan bai azaltzen du «Loramendi»k olerkari-gogoa.

Gaztaroan, beti ere ikasleetan eta neke-bideetan bizi izan bait-zan, erligio-egiak eta gaiak zituan olerkigai. Erpin goitia ta garaia izan ordea ego motxeko olerkari asiberi bildurtiarentzat. Olerti mistiko delakoa bera da izkaturik izkutuena, bera eldugaitzena, aren barnera banan-banango gizon aukeratu batzu besterik ez dira eldu.

Oker legoke oratio «Loramendi» badaezpadako olerkaritzat yoko lukena. Lenengotan, asiberia izaki, odei-gaiñetaraño igotzeko lain ez-ba-zan ere, ba zekian bere olerkiak ederki apaindu ta borobiltzen. Eta batzuek ala ere eta Eusko-Olerti-egunean, Ernani'koan, sarituak bereziki, argi erakusten digu ez zala gure olerkaria mistiko-edertasun-dirdaiak nabaitu, ikusi ta azalzen nolanaikoa.

Ez zituan, egia esan, bide-erakusle geiegi izan elertigaietan eta batez ere eusko-olertian nondik yo erakusteko. Euskaldunetan Añese'tar Emeteri, Jauregi ta Lizardi ezagutzen zituan. Gutxi-geiago irurak eragin zioten zerbait aren gogoari, ta, alako nabarmenak ez ba dira ere, irurenak arkitu ditezke «Loramendi»ren olerkietan aztañanak.

Oratio, Lizardi ta Añese'rena baño Jauregi'ren antz aundiago du neurtitz askotan ta baita bere olerkari-



izaera osoan ere. Coppe, Selgas ta Gabriel y Galan izan ziran beñiz erdaldunetan geien erabili izan zituanak. Eta Salamanca'ko olerkari arenganako zalea ezagun dala dirudi gure buruñurdunaren olerkietan. Gabriel y Galan'en neurtitzak bezelakoxe naroak, biribilak, mintzo-gozoak dira «Loramendi»k oraintsuen idatzitako neurtitzak.

Bidezko izango da, ikutuz baizik ez-bada ere, «Zeruko Argia»n agertutako olerkirik bikaiñenak aitatzea; bi txiki, oraintsu argitara emanak, txoragañiak dituzu. «Onatx erletxoak» ta «Antzekia» deritzaie. Irudi ezagunak izan añen, ain daude ederki egiñak, urtxindor ta ilargiarenak Ama Birgiñarekiko artueman ta maiteixilen beñi yakinarazten digu; ta besteak beñiz iñongo ameskairik xoragañiena sortarazten dio Yosu Aurtxoaren ezpaina erleak zizta zuala-ta.

Oso gogai polita du «Landaretxo Ameslari»k, lenen zatian egoki adierazia, landaretxo loratuak bere edereñ aroturik onako au dionean batez ere:

«Zama yoriaz landaretxoak  
landaretxoak amets dagi:  
—Edertasunak yabetzat naute,  
lorategiko nagusi ni».

Bigaren zatia lenengoa aiñako ba-lu ta argixeagoa, oso-osokoa ta akatsikan gabea litzake olerki au.

Goxoa ta yatoña «Noletan Gero?» Artzai Onarena. Baña xaloo ta tolesgabeko yatoña; oso da atsegiña.



*San Prantzisko'ren Loratxoetako gertakari bat artu du «Maitasuna ez da maitatua» olerkiaren gai. Aipagarria da; xoxoak bere kabian sugoa sartzen eta xoxokumeak ito-bearean ikusita duan atsekabea bizi-bizi du idatzia.*

*«Guztiz Edeña» deritzaion olerkian asten da «Loramendi»ren irudimen-arnasa azten. Biotz-olerkia ta amets-olerkia da. «Tota Pulchra» dakar bukaeran bere erara itzulirik. Nolako gogai bikaiñak ateratzen dituan ortik arima ta aingeru zaitzariaren alkarizketan eta aurreko itz apain aoxurizko amets-irudiz yantzieta!*

*«Ilargitara» atera zaigu olerkaria ilargiak itsasuñetan eraikitzen dituan argi-dantzak ikustera, ta aren argitara, an dakus itsasoa «garden azala, ditziz ondarra, garbi azpia, gaiña leiaña». Miren, erugearen Ama ta Birjintasuna dakarkio onek olerkariari gogora ta «pulchra ut luna» aitortzen du... ilargia bezin edertzat. Ez irudiantza ez abes-neurtitzok ez ditu agian zero olerkariak berak asmatuak; ain beñi-xaloki esanak bait-ditu ordea, auxe da gurekiko «Loramendi»ren olerkirik bikaiñenetakoa.*

*Enada adiskideak buruñurdun gaztearen gelako leiopetan egin du kabia. Maite dute alkar ta abesten du, ederki asko abestu ere, olerkariak maitasun ori. Neguaren biotzean ere ez du alde-egiten. Gau beltz batek ordea kabia izoztu. Kabi-ondoan ontxe dago enada geldi-geldi... ura ere izoztua gaixoa. Biotz-ika-*



ra xamufak «Enada beltza»koak... neuriz ta bigunki emanak.

«Zeruko Argia»n agertutako ogeien bat olerkietatik bixi-ederenak auek dirala dirudi lekaide gaztearen olermen-argiaren ezaugarri.

### Baruntza olerti-leioan

«Euskaltzaleak» urteoro eratzen dituzten olerki-gudaketak berebiziko eragiña eman zioten «Loramendi»ri olerkaritzan. Olerkirik bikaiñen-bikaiñenak 1931'gnean Tolosa'n eta 1932'gnean Ernani'n guduketara eramán zituanak ditu.

Lenengoa, «Añantzaleen arats-otoitza» izenekoa «Eusko-Olerkiak»etako bigarren idaztian sartzeko gai izan zan; eta bestea «Baruntza leioan» izenekoa Ernani'ko Eusko-Olerki-Eguneko sari nagusia irabazi zuan emen, irakurle, lendabizi aurkituko dezuna.

Bi auek bai egiten dute bete-betean «Loramendi» olerkari-izenaren yabe.

«Añantzaleen arats-otoitza» euskal-añantzalearen-tzako eupazko abesti bulartsua da. Aren besoaren indarra, aren bular ta kemena ditu kantagai, aren elizkoitasuna batez ere. Poema txiki biotz-oldarkoia dala esan diteke. Olerkariak antxe ixuri zituan amets-irudimen-etofiak bere gogara. Ez dakit euskeraz irudimen yoriagodun olerkirik ote dan. Norbaitek agian olerkari gaxte asibefiarena dala esango du itzaren mintzo-ots,



durundi gozoko neurtitz, irudiz yosiak oldarka egin bear au. Gogora beza ogei urte betebeñiak zituala idazleak ori egitean eta ez bedi aritu.

Zenbait zatitan banatua du delako poema txikia, alkar zuurki yosirik batasuna galtzeke. Saferan dakeren gotargi-eske-otoitza xartxoan agian tankeraz. Itsas-gizonaren biziera du, ikutuz beste gabe, guzia ari batez lotu ta osatzeko lokari, ta ikuskizun bitxi argiak margozteko bide geienbat.

Ona emen bat, aukeratzen bat ere ibili gabe, bizitasun ofen irudi polita.

«Mendi txuntxuak baño arago,  
zeinbat yeixten dan, ainbat gorago  
belarte biak  
zorotz yosiak  
euzki zañaren aizken izpiak  
arano beltza edari dago».

Ondaribi'ko lekaidetxean ikasle zaneko olerkia da nonbait au; itsasoak eta itsas-gizonen bizitzak «Loramendi»ri eragindako biotz-zañazta. Or agertzen bait zaigu olerkari itsasoa ola ikusten zekian gaztea, baita añantzale euskalduna maite zuan eusko-abertzale zintzoa, aien tresna ta izkuntzaren beñi ongi ikasia baitda. Euskaltzaletasunak eraginda amaitu ere egin zuan poema txiki au Ama Birjiñari otoizka, añen, Euskaleñia zaitzeko. Euskaleñiaren aldeko kezka oiexek berak nabari zazkio beste olerki bioztun batean: Yesus Yau-nak gurutzetik, Euzkadik utzi bear ote-duan bilduñez



maitezko aŕenak zuzentzen dizkio asaba zaŕen siñis-  
menean iraun dezan. «Espak» du izena olerki onek.

Aŕantzaleen aupazko abestiaren aldean goitiaŕa  
degu «Baŕuntza leioan» III Eusko-Olerki-Egunean  
lenengo saria irabazi zuan olerkia.

Ernani'n sariztu-olerki au goi-maitezko da oso-  
osoan, lenengoa zearoko biotz olerki bezela. «Aŕan-  
tzaleen aŕats-otoitza» «Loramendi»ren biotzean itsa-  
soaren izkutapen eta ikuskizunaren aŕean sortua da,  
itsaso oŕekin beti ere buru ta beso buŕukan bizi bait-da  
euskaldun aŕantzalea. «Baŕuntza leioan» beŕiz Maitea  
ezagutzean arimatik ateratako baŕu-intziria. Olerki  
ontan dana da baŕukoi, biotz-baŕeneko txokorik izku-  
tuenean gordea. Dana da yainkotiar. Olerkariaren  
arima-barnean bildua da dana, bere Maiteak maite  
duala ikustean barnera biltzen bait-da olerkaria.

Yainkoaz gartsuki txoraturiko gazteari dagokion  
olerkia da egitan au. Lekaide abesleak maitemiñezko  
intziriz itz egiten dio Yainkoari. Asis'tar Donearen  
aduŕa dario non-nai olerki onek, baño irudiz ta antze-  
kiz ornitua, ez bait-dute auek olerki-giaŕa bat ere  
aultzan ez iluntzen, bai ordea arimak Yainkoarekin  
dituan maitezko artuemanak bizikiago adierazten; eta  
Yainkoak barneko ilunpeak bere argiz dianak ditu  
argitzen, len auts zana, gero dana argi-izpi ta lore ta  
kanta biurtzen bait-du biotz ezurētarañoeko guzia.

«Oro det izpi, oro det lore, oro det kanta  
ene gogoak ikusi bait-du aldaketa...



*Gela ontara ene maitea sar ezkerotik  
biotz ezurak bai dute naiko loraketa».*

*Baño goimaitezko ler-zartada ontara baño len, ertilariak an agintzen du olerki-asieran, gudu-zantzu oro, ots oro ixiltzeko, barnera bil dedin.*

*Ez goaz olerki ontako goaiak banan-banan aukeratzera; Yainko-maitezko gañezka ontan aapaldi guzietan ditugu ainbat gogai ta antzeki, ainbat edertasun eta antz-irudi, ezin izango genuke zeatz olerkiaren beñi eman. Maitearekiko biozketa zoragarriak beñiz, ainbeste ta ain sari ta usu, norbaitek uste izan dezake ez duketela alkarekin bear besteko batasunik; aundia dute ordea ta arnasa gero ta aziagotuz, biotz-ixuri edeñak abesten yartzen dute azkenerako olerkari maitemindua.*

*Barne-ateak itxirik, ez entzuten arimak Maitearen barne-mintzo gozoa ta Maitea ez ezagutzen; baño ez al ditu zabaldu, oña, besartean dakus txunditurik. Orain ez da lekoreko ezereen yakinmin. Alkar-maitasuna abestu ta abestu ari da; ez du bear besterik. Abesti luzea; bere aapaldi ugari ta guzi ere, ez da bat ere aultzen ez makaltzen asierako kemen bizia ta irudimen-oldaña.*

*Auxe da «Loramendi»ren olerkilarik gurenena. Bikaiñagoak egin al izango zituan noski, Yainkoak gure artean luzaroagoan utzi izan ba-ligu. Aren olermena, azken aldiko idazlanatan, asibeñiko bildur-mildur ta lañoak utzita, sutsu, oldartsu, ditzikor azaltzen*



da ta arnari eldu eder-bikaiñik asko eman bear zizki-  
gun. Izugarizko auferatekoak zegizkian «Loramendi»k  
olerkaritzan.

«Lizardi» tzazitz egin genuen orainitsuen. «Lizardi»-  
ren besterakoa genuen «Loramendi». Aren eta onen  
bideak alkañen aurkakoak ez ba dira ere, oso dira ba-  
nakoak. «Lizardi» zaintsua, gogai sakonak soil yal-  
kitzen zituana, irudi bakan-bakan aukeratuak gori-  
yator ematen zekiana, esan diteke irudimena buruaren  
mendean lotzen zuan gizona zala. «Loramendi»k ostera  
yarei darabil irudimena ta bere gazte-iturburuko eto-  
ria ibaika dioakio neurtitz oparo ozenetan.

«Loramendi»k ere ordea nagusiro erabiltzen zuan  
euskerā. Ez noski «Lizardi»k bezin buruz ta sakonki,  
euskeraren eri-eraietan murgildua bait-zan «Lizardi»,  
baño bai ezez ta naro, gurasoen izkera ederki ikasi ta  
landua izaki. Aditz irabiazale bait-zan, oñen bidez  
apainki tinkotzen zituan neurtitzak, itz ugari abera-  
tsez yantziz-eta. Bere olerti-udabeñi-udabeñian igartu  
zaigu «Loramendi» itxedopen-lore bipila. Olerki-bi-  
deak ura ta beste gabe. Aren izena, ala ere, beti-betiko  
idatzia da euskal-elerti-ofietan.



Leñotxo oiek zanaren omenez idatzia ditugu. Ez bai-  
zaigu beñiro aren izena goratzeko sasoi egokiagorik  
gertatuko. Ara, «Loramendi», olerkari adizkideari



gure maite agurra egin. Bere «Baruntza-leyoan», 1932'garango urtean Ernani'ko olerti guduan saritutako olerkiaz liburutxo onerik asiera ematen diogu.

Iturriaga alegilariaren gorasareari buruz Ernani'ko olerti jaya espatu genuan. Olerti gudua erabeñiatuaz, ordea. Alegia, olertitasuna zabaltzearen sariak ugaritu zirala.

Eusko kustusuko poematxo erikoiak sortazari nayaz olerkariari ots egin zitzairen. Bik erantzun. Jakakortajarena'k eta Tapia Perurena'k. Oien poematxoak orrialde oietxetan irakuri zenezazke.

Jakakortajarena txapeldun. Bere poematxoa, saritutakoa. Ez goaz olerkari onen beñi ematera. Ezagutua zaigu. Bego, oraingoz, luma geldi bazi zaigunaren olermena aizera gabe. Jakakortajarena'ren etorkisunak bere izena goratzera makurtuko gaitu-ta.

Gaurkoa, osoro, «Loramendi» rentza bedi.

AITZOL'DAR J.

.. ..







EUSKO-OLERKIAK

**I'go**

ZATIA



# BARUNTZA-LEYOAN

## MAITE KANTA

*Dilectus meus mihi, et ego illi, qui pascitur  
inter illa. (Cant. II-16).*

*Ene maitea neretzako, ta ni arentzako.  
Onek jana lili tartean du.*

Loak ar bitza, loak ar bitza gudozte-kantak.  
Dunbots zakañak beude gaurdanik ixilean.....  
Zarata orde, otsera bitez biotz ormetan  
lelo xamuñak, argiz ez ezik, gau beltzean.

Erna bekio, zugaitz il̄ oni, kima beñia;  
loretu bedi maite oparen gar zurira.  
Ta itzal goxoan aterpeturik, josiko ditut  
adi sutsuak, oñi ta loren intzirira.

Nora noake, maitasun eske, neregan baitet  
edeñik oro berezko ditun Maitalea?  
Nola nabilke, argi-zaletsu, bañnen baitigart  
sukar-miazka, kixkaltzen nauen su-labea ?...



# En la ventana de la conciencia

## CANCIÓN DEL AMADO

*«Dilectus meus mihi, et ego illi, qui pascitur inter lilia». (Cant. II, 16).*

*Mi amado para mí, y yo para él, que se apacienta entre lirios.*

. Dormid, dormid ya, cantos bélicos ; cese desde hoy todo ruido inquietante. Y en lugar de la algazara resuenen en los muros del corazón las dulces tonadas, tanto de día como en la oscura noche.

Retoñe este árbol sin vida, y florezca a favor del blanco llamear del deseo del Amado ; y refugiado en agradable sombra lanzaré (tejeré) ardientes estrofas al arrullo de hojas y flores.

¿ A qué mendigar el amor fuera de mí, si conmigo está el Amado, que es de sí fuente de toda hermosura ? ¿ A qué andar en busca de la luz, si dentro siento que me abrasa un horno de fuego con acariciantes llamas ?



Oraindañoako ene begien lauso goña!  
Bañen etxeko axolage ta lo-zoñoa!  
Irten-sartuka, joran-izerdi, jarduki-eta  
nabari ez nik, ate zai zegon usotxoa!...

Izpi-zoñozki, geziko al nau maitale oñek!  
Lertuko al dit griña makuñen gaitz-burua!  
Maite-gelako ardantegian estu loturik,  
moxkor nazala, natzaion gaurtik zoratua!

Uxa ditzala, oroitza zear digarozkidan  
ekaitz-laño ta elur auñeko bekaizketak.  
Ta ipar mearen ega zurira joko dizkiot,  
amets goñitan, ernemin dauden maitaketak.

Badantzuizkiot, ixil bederen, bañun-bañunki...  
bere mintzaren zur-muñu leun ta eresiak...

Ta aspaldi ontan laño-narakar nola ixuriko,  
zor dizkiotan asperen-ñanta bioztiak...

Bil nadin noizpait, ero galanta au, bañen ontara.  
Nagon geldixe biotz-leyoan tinkatuki,  
maite pil-pilak daragitala jo ditzaiodan  
espa biguin ta leya zoñotzak txinpartari...





¡ Qué ceguera hasta el presente la de los ojos míos ¡  
¡ La desidia y el letargo han reinado en el caserío del  
alma ! ¿ Es posible que a pesar de andar anhelante y su-  
doroso, saliendo y entrando, no toparan mis ojos con la  
palomita que estaba vigilante a la puerta ?...

¡ Ojalá que el Amado me asaetée con los rayos pene-  
trantes de su aljaba, y destruya en mí la raíz de mis tor-  
cidas pasiones ! ¡ Que conduciéndome al punto a la  
bodega de la morada del amor, me embriague para vivir  
enamorado de El hoy y siempre !

Disipe las tempestuosas nubes que pasan nublando mi  
mente y la hosquedad de tiempo, que precede a las ne-  
vadas. Y en las blancas alas de la brisa sutil yo le ende-  
rezaré las amorosas endechas, que en estos mis rosados  
ensueños están germinando.

Oigo ya, (bien que) calladamente, aquí muy adentro...,  
el suave y melodioso rumor de su habla... Y há tiempo  
que me trae entristecido el no saber cómo derramar los  
afectuosos anhelos, que le tengo en deuda.

Recójame ya, loco de mí, hacia el interior. Estéme  
quedo, recostado en la ventana del corazón, y a compás  
de crepitantes latidos le confiaré con ardor mis suaves  
cuitas y mis vivas inquietudes...





Maite-aroan... lur maite-miñak garatx ninduten ;  
ez jan ez edan, arat-onata narabilten.

Biotz-kondoan kabitu ziran zale miñiak  
garai obeko azi gazteak il zituzten.

Larutu zidan bañen zugaitza eguzki-ezak ;  
pipi-goñiak jan zizkioten kimatxoak...

Ta azala zear bidetu ziran txinguri beltzak,  
bana-banaka, moztu zituzten goiko ostoak.

Migura baizik etzan ageri adar ertzetan ;  
beso zaintsuak, ezur iduri, sutarako.

Ta ilundi-loan lasaiki zetzan muxar gaixtoak,  
begiz jo zitun bere sustraiak kabitako.

Beingo batean, ate-danbada entzun deritzat,  
ta atera nintzan, giltza eskuan, an nor ote...

Ta idekitzean... ura bai zala maixtar bakoitza !...  
Ondasun oro eskeñi zidan biotz-orde...

« Sar zaitez, bada, erantzunt nion, gela ontara...  
Ortxen zaudeke zure gogora nai adiña ».

Ta au entzutean zuzendu zidan argi-zifara,  
ene! neregán ikusi nuen loi-osiña !





En la edad del amor, el ansia del goce terrenal me regaló amargura ; ni bebía, ni comía, y andaba como loco de un lado para otro. Aficiones mezquinas anidaron en el raigón del corazón, ahogando los tiernos gérmenes de tiempos mejores.

Con la falta de sol desmedróse el árbol de mi alma, y la carcoma comió sus tiernos brotes. Las hormigas negras a su vez, deslizándose por la corteza, desmocharon una a una hasta las últimas hojas.

Solo el muérdago crecía entre sus ramas, que semejaban nervudos brazos esqueléticos, que no sirven sino para el fuego. Ya el lirón, que dormía a sus anchas en la oscuridad, tenía escogidas sus raíces para fabricar el nido...



Pero una vez creí escuchar golpes en la puerta, y salí, llave en mano, para cerciorarme quién fuese el que llamaba... Y al abrirla..., me encontré con un huésped por manera extraño, pues que me ofreció toda clase de bienes a cambio del corazón...

«Entrad, pues, le respondí, a esta morada, y podéis estar a vuestro gusto cuanto queráis». Entonces, a favor del foco de luz que me enristró, ví horrorizado dentro de mí un abismo lleno de hediondez !...





Añezkeroztik, ene aularen sendotasuna !  
Añezkeroztik, bañen etxeko poz ta atsegin !...

Naiz laño egon zeru ta luñak, enegan beti  
enegan beti euzki-urtea dirdai-oztin !

Zabaldu zaizkit, noizbaitekoan, biotz-begiak ;  
noizbaitekoan upatu bai det maitalea.  
Ta ikuste uts-utsez, bereixko balitz etxe ontatik,  
bertantxe nuke zorigaitzaren zasztadea.

Beranduegi ai! zoritxañez, ezagutu det ;  
beranduegi ate-jokara naiz oartu...

Egunik-egun biotz-atean noiz idekiko,  
ta itxu beltz onek, muzin gaiztoan, ai! giltzatu !

Oraingo nere zentzu galduen itzañi ona !  
Oraingo nere begi lausoen ikusia !

Lengo edeña, narda dakuste ; narda, ordea,  
emen litezken eder oroen ituña...

Emen dagotik, emen dagotik ene Maitea ;  
biotzak baitu sumatzen bere agerpena.

Zai dagokio, pozaren mende, noiz elduko-ote  
sentzu guzien zorabio ta zoramena.



¡ Desde entonces qué robusto me siento en mi debilidad ! ¡ El placer y la alegría reinan en el caserío de mi alma !... Y aunque el cielo y la tierra rueden envueltos en nieblas, un sol de oro me envuelve con azul centelleo.

Por fin hánseme abierto los ojos del corazón, pues que ya he hallado al Amado. Y una vez que lo he visto, si se alejara de esta casa, al punto sufriría la punzadura de la desgracia.

¡ Ay ! ¡ Cuán tarde le he conocido, sin que advirtiera los golpes con que me llamaba a la puerta ! Día tras día esperando que le abriera el corazón, y ¡ cuántas veces, cruel, se lo he cerrado con ademán brusco !

Mas ahora, ¡ cuán dulce es el despertar de mi perdido juicio, cuán clara la visión de mis nublados ojos ! La hermosura de antaño, hogaño les causa repugnancia : en cambio lo que antes no podían tolerarlo, hoy es para ellos fuente inexhausta de consuelo y hermosura...

Conmigo tengo al Amado, y el corazón barrunta ya su presencia, y desea que el gozo acabe de fascinar y encandilar todos los sentidos.



Auxe biotzen egon luze ta pilpil berdiña ;  
Auxe ixilaren adigañizko jardun goxo !  
Arantzak sartzen balizkit ere, nere biotzak  
ezten zulotik, zorun beña gaur artuko.

Igortzi-leunka, euslari dauzkat bere besoak ;  
bere niniak, ene begien ur-ixpilū.

Ta argi-jarioz dagizkidaken mintzo eztiak,  
esker beñi ta biotz-jantzien edergailū.

Arnasa batek darabil gure bular-auspoa ;  
taupari berak biotz-unea pilpiratzen.

Ta udalen-lorak eguratsera liraken eran,  
maite-lafoşa muxuan zaigu gofixtatzen.

Maitasun-izpiz urtuki dago nere gogoa ;  
zenbat jaramon, ainbat biotza goriago.

Ta argi-dirdaiak lilura duan txoññoa lez,  
galda zuritan, eguzki oñi begi nago.

Mintzari baitet... mintza ni ere; ta ixil banendi,  
laister lekarkit biotz-taupadak erantzuna.

Ta izpi-malutak joa bai nintzan, emaratzen dit  
bañun-mamiko xamur-jarien leuntasuna...



¡ Qué reposo éste y acompasado latir de nuestros corazones ! ¡ Qué dulce la música clara del silencio ! Aunque las espinas me puncen, sabrá hoy mi corazón encontrar en sus heridas un nuevo placer.

Sus brazos, a la vez que me abrazan (enjugan), son mi sostén ; y sus ojos el límpido espejo de los míos. Y las palabras dulcísimas, que me dirige en efluvios de luz, son el adorno de la nueva gracia y del vestido del corazón.

Un mismo aliento es el que mueve nuestros pechos, y unos mismos latidos cunan nuestros corazones. Como las flores de la primavera al oreo de la brisa, florece en nuestro rostro la rosa del amor.

Los rayos del amor me están derritiendo el alma, y cuando el corazón se enamora, otro tanto se inflama. Y como el pájaro queda fascinado por el resplandor de la luz, miro enajenado a este Sol chispeante y abrasador.

Si me habla, yo le contesto ; pero si me callara, muy presto los latidos del corazón me transmitieran su respuesta. Y, como si me hiriera con copos de luz, despierta la suavidad de las efusiones tiernas de mi íntimo ser.



Ta áreta luzez beláfi nago bere mintzora,  
ziñez dalako ezta bere jardunean.

Ta aize biguñak daragioten árosa bik lez,  
amets dagigu buruak gurka laztanean.

Ta ipar beltzera lore-pitxia baúntzen dan lez,  
gure gogoa ekin gaiztora ximurtzen da.

Ta alkaí eutsiz, baúti ontan indartsu gera,  
oó ta txistu, gain dan tartean gaitz-egada.

Nere bizia ezta nerea, berea baño ;  
Bera ordea nigan bizi zait bat egiñik.

Ta intxaur-adaíak, ez oi duten lez esnerik gabe,  
nerez ez dakart jan-gai liraken zitu onik.

Bañan nerenez ezin detana. Maite onekin  
naya dan beste, une batean egiña da.

Oro dezaket beronekin bat; bañan au ezik,  
bertatik nuke gaitzik latzenen zapaíada.

Maite dut, maite...; maite, egaztiak egadak aiña ;  
maite..., ilargiak kuku-igaria gauan beste...

Maite nau, maite...; maite, dirdaiak ispilua lez ;  
maite..., edertiak ume xaloak bezelaxe.



Oigo extasiado sus palabras, pues que tiene miel su voz. Y como dos rosas movidas por la suave ventolina, sueñan nuestras cabezas en mutuo vaivén.

Y si con el vendaval se repliega el cáliz de la flor, también se recogen nuestras almas al soplo de la adversidad. Y con mutuo apoyo, somos fuertes en este recogimiento, mientras la contrariedad silva y brama sobre nosotros.

Mi vida no la quiero para mí, sino para El. El en cambio vive en mí haciéndome una misma cosa con El. Y como las ramas del nogal no fructifican sin savia, ni yo puedo dar, por mí mismo, fruto alguno comestible.

Pero lo que no puedo por mí, con mi Amado en un momento consigo cuanto deseo. Todo lo puedo con El ; pero faltándome Este, luego llovería sobre mí el torrente de los mayores males.

¡ Yo le amo ! Yo le amo... como el ave su vuelo, como la luna sus danzantes intermitencias. ¡ El me ama ! El me ama... como los rayos el espejo, o como el arte ama el niño.



Ta argi-txintara elur-tanfoak lerorzken eran,  
araka darortz eguzkitara biotz-miñak.

Ta izpi-urteak damaien bidez, loretzen dira  
aspaldi zurbil zirauten adar-kukuliñak.

Itxu-birari, aterea da xaguxar beltza,  
euzki-zeñendak txoko iluna tink orduko.

Ta armiarmaren dantza-sareak dilindan dagerz,  
itur-ariak euzki-ixlan baño diztiago.

Ure ta lore dirdari dago bañen-etxea ;  
izar-jantzirik, zutirik daude onbideak.

Ta agur-ereska makurtzen dira maite-auréan,  
gaurdaño ezin legozken zentzun gaizkileak.

Bizi beña txerta dit nere odol-zañetan ;  
ote ta arantzak lañosa zuriz pinpirinpin.

Ta arkoskopera labain zegion goi-esker-ura,  
orain zugaitza muxuka ari da, leyar-oztin.

Ixil nadin da... bertan dantzuzkit, arñosa tarte,  
urtxindoñen xinta kixkur ta oroimenak.

Ta berartantxen, izpi-bustika, egati dauden  
goi-uxotxoén papar-aleko asperenak.



Y si a los primeros rayos de la mañana caen las gotas de nieve derretida, así caen con este Sol a torrentes las penas del corazón. Y allí donde tocan sus dorados rayos, brotan en las ramas las yemas, que há tiempo estaban pálidas.

Ya salió el negro murciélago, ciego y alborotado, apenas el foco solar atravesó el rincón oscuro. Y las danzantes telas de las arañas aparecen colgando más resplandecientes que el manantial de una fuente en el resol.

Con el oro y las flores esplende el caserío de mi interior; y vestidos de estrellas gallardean jubilosas las Virtudes (los caminos del bien). Con reverencia dóblanse ante el Amado los hasta el presente indómitos y malévolos sentidos.

Ha injertado en (la sangre de mis venas) mis arterias una nueva vida: los argomales y espinos aparecen festoneados de blancas rosas. Y aquel don de lo alto que se escullía entre los guijos, hoy acaricia mi árbol nimbándolo de cristalino azul.

Cálleme..., y al punto oiré entre las flores los ensortijados arpegios salutantes de los ruiseñores. Y a la vez los arrullos de las gargantas abultadas de las palomitas celestes, que se ciernen bañadas en luz.



Oro det izpi, oro det lore, oro det kanta ;  
ene gogoak ikusi baitu aldaketa !...

Gela ontara ene Maitea sar ezkeroztik,  
biotz-ezuarak bai dute naiko loraketa.

Etoña zait, beronekintxe, ondasun oro ;  
berezko ditu asma litezken on-ituñi...

Ta udabeñiak azi gazteai demaizkien lez,  
ene gogora esker-euriak dixurizki...



Ez al dit iñoiz iges egingo Maitale onek !  
Ez al dut ai ! nik, etxe ontatik, baztertuko !  
Maite-aduak egingo al du, gu izan gaitezen,  
bera neretzat ta ni osoro, beretzako !


Urtu dezala geroz geiago biotz-lausoa ;  
zabaldu bekit ezaguraren nini-izaña...

Ta alkar-izpien beroaz laixter uré-kuskuak  
auts-antz nituzke, urin-malutan, paña-paña.



Todo en mí es resplandor, todo flores, todo cantos, porque mi alma ha visto su mudanza (metamorfosis). En verdad que, desde que mi Amado entró en esta morada, es abundante la florescencia que ostenta la osamenta (el ramaje) del corazón.

Con El me ha venido el cortejo de todos los bienes, ya que por su naturaleza es la fuente de todo bien imaginable. Y como la primavera deposita en la joven semilla sus virtudes, así derrama sobre mi alma la lluvia de la gracia...



¡ Ojalá no se aleje nunca de mí el Amado, o más bien, que no le eche yo de mi casa ! ¡ Que el hado del amor haga que El sea para mí y yo todo para El !...

Disipe más y más la ceguera del corazón, y ábrame el ojo luciente de mi juicio. Y al calor de los rayos mutuos presto se sazonarán los dorados capullos, derramando a raudales sus perfumes.



Iñoiz ez al dit nagiak joko baíen karnaba ;  
ez al du utziko, asita dagon, xinta mea.

Egunik-egun aítuko al zait maite-leloan.  
gozatu dedin irakas dion Maitalea.

Ta abesti oíen oyarzunera, pizkor genuzke  
maite-eguerdien egon luze ta bazkal-mintzo.

Ta aíasaldeak, izpi-euritan, lekarzkiguke  
maite-koluxken izar zuri ta zorun-ardo...

BEDOÑA'TAR JOAKIN A.

O. M. Cap.

.....



Que la pereza no se apodere del jilguero del alma, para que no cese en la aprendida sutil tonada. Que día tras día se despepite cantándome la canción del amor, y regocijando al Amado que se la enseñó.

Y al eco de ese canto se animará el largo reposo del mediodía del amor y el habla que sigue a las comidas. La tarde, por su parte, nos traerá la blanca estrella, que luce radiante en las siestas del amor, y el vino de la felicidad...

.....



# MAITE-EZIÑA

## ALKARIZKETAN

—Jainkoak egun on, Pilar.  
—Baita iri ere, Joxeba Andoni ;  
«Opate» bordan zer izpar ?  
—Bordan, amona gona-goña,  
Mutila beti praka zar...  
Goizean talo kixkalia ta  
Baraurik maiz egon bear...

—Ire beñi ba-zekit nik...  
A zer azala i...! axeri ofek,  
Ez jalki emen gezufik.  
Amona xaña limurtu eta  
Opil koxkoña ez lortu ik ?...  
Ez ote-diok gaur ezer kendu  
Aiton onari toxatik...?



—Zer uste dun ba, txatxala,  
«Opate» bordan mutil laztua  
I antzo bizi oi dala ?  
Zortziak jo ta oera amatxo,  
«Kokolo nai dun, mazala...?»  
Oraindik jeiki gogo ez badun  
Ekañiko bereala»...

Besterik baitun gurean.  
Akil batekin, aldañika ama  
Zetoñen bostak aldean :  
«Au dek garaia ! jeiki, zangila !  
Talo otza an daukak maidean...  
Beiak jetzi ta azpiak atera  
Txalak edoski artean».

—Érexki diok gezuía.  
Mintzo aizunaz, nola atzipetu  
Onako nexka zuhuía...?  
Ez duk aipatu, bada ezpada,  
Maltzur ez besten maltzuía,  
Lan-ondorean, afaultz batekin  
Jan duken txistor-mutuía...?



—Ta gero etxeratzean  
Amak maiteki esan oi din :  
«No, salda an daukan maiean».  
Ta niri : «Ots ; ar zak bazkaria,  
Aita an baituk garañean...»  
Gero zama astun arékin jo zan  
Ordu beteko bidean...

—Ori ez duk bizi txar!a !  
Mendi egiko bidetxioérez...  
Aizez anpatu bular!a.  
Txorien txiots, beor-irintzi,  
Beeka ardi otzan bakar!a...  
Olagor-txakur-txintxar!i-tilin,  
An emen ketan txondar!a...

—Ez daki nexka miliñak  
Zeñen goxo ta eztiak diran  
Oianeko atsegiñak ;  
Betor, ba, murtxa nai ba'ditu gaur  
Lar-oteen muxu biguiñak,  
Xanko txuriak nola axkuretzen  
Dituzten asun sumiñak...



—Bai atsegiña mendia...!  
Arkaitz-gañean burua itzulka  
Lerden aitzore laña,  
Gurdi garoen klunkatakoak,  
Aida ta aida itzai txuria,  
Urun ote-dan entzun-iduri  
Mandazai bertsolaria...

—Irudimena ik bizkoía.  
Ez baitakin ba nolakoa dan  
Baso beltzeko listoía.  
Ez baitun iñoiz murtxa mendiko  
Baba latz, ogi gogoía,  
Sardin-zaía ta bakaño gazi,  
Abarka bezin legoía...

An ezin esan amari :  
«Ez dut nai xopa ; ona elbia  
Nola dabilen igari...  
Esnea ezin artu dut, ama,  
Mamiak dauzka ugari...»  
Xopako-elbi, esne-mamiak  
Danak ditun an janari.

.....



Ez dun iretzat mendia...  
Siñetsi zaidan, niretzat ere  
Ez dun ba egin uria...  
Obe dun noski ere lekuan  
Igarotzea bizia.  
Nik ere iñolaz ez nezakenan  
Utzi nere baseña.

JAKAKORTAJARENA'TAR TXOMIN.

\*\*\*\*\*



# MAITE DAMU

Ontzi bat sartu zan kaiean negola  
ke beltza ortzironz aro zeriola.  
Ango poz-eresi ta atsegiñ-zantzoak  
nigaño zekarzkin ego-aizetxoak.

«Atoz, adixkide, atoz guregana ;  
gurekin dakargu atsegiñ-laztana »,  
zioten, niganontz zabalduz besoak,  
zerurontz jasorik alaiki satoak.

Zorion-egañiz bertan sartu nintzan  
oyu ta iñintzika, eroaren gisan.  
Itxaso-bañena jo zuan ontziak...  
Ur-azalan dirdiz-zegin eguzkiak.

Kaietik besoak luzatuz nigana  
zutik, an zeunden Zu, Maitale laztana,  
begi negartsuaz, amaren antzean,  
begira... ontzia ezkutara artean.



Ba-dakizu gero gerta zitzaidana :  
ekaitza sortu zan, galdu nuan dana,  
txima legor gabe ol baten gañean  
il-zorian sartu niñuzun kaiean.

Kendu zeñizkidan soñeko bustiak  
ta jantzi, Zeorék berotuz, beñiak :  
ezañi niñuzun zure magalian,  
musu bat emanaz nere bekokian.

Maitasun-ardoaz ber-piztu niñuzun  
maite ziñudala nik zin-egin nizun,  
t'ez nintzaizula iñoiz, poz-zorion-miñez,  
beñiz aldenduko, esan nizun ziñez.

¿Noruntz jo, Zu utzita, Maitale laztana,  
gizonik ederen, begi beltzerana ?  
Ezti-ituñi zaizkit zure ezpaiñ goñiak,  
ortzia dirudi zure bekokiak.



Maitale guzien laztan oro baño  
zure musutxo bat askoz det naiago.  
Izotz biur zaizkit bestien musuak,  
biotza berotu zurearen suak.

Zure zigoñaz jo nere biotz-aitza,  
biguiñdu, loia lez, t'eman zure antza,  
damu-malko-ituñi begiok biurtu,  
nere bioztxoa Zureagan urtu.

JAUREGUI'TAR KOLDOBIKA.

.....



# MENDI GOI-GOYAN

Mendi tontoítxu zoíotz batian

nago begira :

agiri dira

alde batetik itxas zabala

eta bestetik baíz, ligoía.

Ortze zabala eguzki izpiz

urdiña dago,

eta berago

axe garbija mendi goyetan

ta ur gardena iñurijetan.

Txorijak yarei egan dabilzaz,

txori poliñak

abeslarijak :

axe biguna

ozkiñitxua,

eguzki leuna

...j a tokitxua !



Tontoñian, ba, bakañtadian.

Edeñtasuna,  
mañetasuna

mendi goyetan, ementxe dago,  
eta ixilik oldozkoñ nago.

Mendi goi-goyan, ta neu bakañik ?

—Ez, bakañik ez

Beste bat ziñez

dot ba, laguna ; a bai laguna  
benetakua...! Aloroduna.

. . . . .

## I

Itxas-ugiañak urumaraka  
ixontzajak itxas-ziañ  
uñak baxakaz aurkitutian  
bits zurijak egin biañ.

Itxas neurige orlei-urdiña  
gaur dagañ bare-baría  
an urunian ortze zabalaz  
ixilik dagañ bakia.



Itxas bařena mendijak duaz  
itxas-ugĩnak luřerantz,  
ixontzitxuak ařaņez datořz  
iřunge datořz kayerantz.

Itxas-txorijak aidian dabiltz,  
itxaso naiz luř ganian  
gixa-gurenak oi-diran legez  
ipuin-ingoski tartian.

. . . . .

## II

Euzko mendijak, sendo yatořak  
dakusgus ernai zutunik  
goi aldietan ikuskaitz laņoz  
ortziagaz bat egiņik.

Mendi goyetan basatxaunua  
edo Gurutza donia,  
toki oneitan obeto nabai  
oron Egile mařia.



Landa orleyak, baso, oyanak,  
sagasti eta zelayak,  
muño ta ibaí, mendi, aranak  
iñuri eta ibayak ;

értzain txabolak artegijakaz,  
besetxe zuri goñiak,  
burdi bidiak, bide zidoñak,  
aintxiñetako añiak...

Motetan bedaí orlei bañija,  
oxiñetan ur garbija,  
areizpietan itzal edeña,  
itxas-ertzian urija.

Nekazalia bere lanean  
ipuztañjaz soluan...  
etxian ama aurtxu kutuna  
lolo daukala altzuan.



Guztija dabil, gaudi osua  
Jaubia'ren lagi-pian...  
ortzia luřaz, ta itxasua  
ortze ta luřaz batian.

. . . . .

Gaba urbiltzen eguzki'k agur' ;  
izpi ilizkak  
azkenenguak  
argi apur' bat orain dagije,  
ixařak nairik argi ba'leye.

Ta ilunabař ostian gaba  
iluna datoř  
; Gabea, betoř  
Gořař lagija yařařu bedi !  
Eguzki'k beste aldian dargi...



Ortzia ilatz eta ixaréz  
josija dago  
eta berago  
axe garbija mendi goyetan,  
ta ur gardena iturijetan...

Gentza alaya  
euzko urijetan,  
Itxaropena  
geure bijotzetan...

ERKIAGA'TAR EUSEBI.

.....



# Zorigaitz eta Itxaropena

Zoritxañak batuten dituz goguak  
(ofetara beteko gure asmuak).  
Zoritxañaren kiñu samur gozuak!  
Zubekaz beñpiztuko bijotz gaxuak

.....

Atzo zorijon utsez, gaztia zana  
eta aberats, aundikeriz betia,  
guztija laguna ta adiskidia  
zelanik gaur dagon adi, otoi, ona :

ixilik, apal, naigabe - itsasuan  
iño bial antzean: gaba dau oro  
itun, ilun dageñ; aul-aulik lo dago  
guzur lagunak ba, eztabe goguan;

itzalija baitau egi-eguzkija...  
«Nora yuan zara nigandik, argija?  
Zertarako ete nai orain bixija..?  
Atsege nabil, ene! samin-basuan,  
ez ete ixango iñortxu onduan?..



Ixi, oldoz begit: emen dot gentzaro  
edeña, ¿ez ete bijotz-osagañi?  
aunan aurkituko ete zori bañi,  
berpizkunde zindo leñuba luzaro?..

Enaz bakañik, Jauna, baña dagiri  
...bijotz ontsu talde aundija dirudi;  
Bijotz-batasuna, egi-mañasuna  
atsegiña! ageñ añen, zeure guna.

Zelan ibili naz ba, okeñ galduta  
ludiko zorunaren zoritxañean  
sasi ta otadun bidian sartuta,  
nasi ta argi bako gau ilunean?..

Zorunan bijotz alairik ba eneban,  
soñeko añokeri aundiñasunak  
niretzat minkoñak, galgañijak ziran  
eta orain gentza dau nire bijotzak,  
soñez ezer eztot baña etoñi da  
ene bijotzera mañasun edeña..!»



Zoritxaíean batzen gara gixonok  
eta maíe ixanen gara guztijok.

Ortzian ilazkijak ixilki dargi,  
itxaropen ixaíak aul, diz-diz dagi...

.....

Zorigaitzak batu daruaz goguak,  
oíelan beteko gixonen asmuak;  
Zoritxaíaren kiñu samur gozuak!  
zatorzte berpitzera bijotz gaxuak.

Zoritxaía! zu zara  
bijotzen maíasuna...  
zorigaitz apalgaí  
goguen batasuna...

Zeu ba, baíu garbijen  
zain daririk onena,  
alaíuko gaíuzan  
egi-itxaropena...!

ERKIAGA'TAR EUSEBI.



# TXAPELA

Elizkizun ondoren  
Jai araltsaldean  
Gazteak bildu ziran  
Kontsejupean.  
Txomin da Peño zeuden  
Alkaren artean  
Pilotan zein geiago  
Ikusi naiean...  
«Aitaren» batean  
An non dabiltean  
Biak makautsean  
Arkupe betean  
Tuntunak txistu-txistu  
Jo bitartean.

.....

Bizi-bizi Txomiñ'ek  
Luzatuz besoa  
Sartu dio Peño'ri  
Bigarengoa.  
Onek igari dio  
Ari dun jokoa



Eta datoñenian  
Irugañengoa,  
Besogañekoa  
Jo, eta an dijoa  
Bi ormetakoa ;  
Ez nolanaikoa...  
Ango ixkanbila eta  
Ango zantzoa !

.....

TXOMIN. Ba'zekiak nik, Peño,  
Ikusi dekela  
Burni-ertza jo eta  
Okertu dela.  
Uste al'dek agian  
Bestetan bezela  
Ain eñez jokaldia  
Emango ditela ?  
Egidun naukela,  
Gauza ez aizela  
Aitor zak, bestela,  
Gixajo ergela,  
Ez dek lanik izango  
Jazten txapela.

.....



PELO. I ni baño geiago  
Pilota-jokuan ?  
Euskaleri'n Peġo'rik  
Ez dan orduan...  
Aitzekia dek beti  
Jokatzerakuan :  
«Pilota motela dek»  
«Min diat eskuan»...  
Udara neguan  
Negu udaburuan,  
Iritxitakuan  
Beti gerokuan...  
Itz-ontzi bat bezterik  
Ez aiz munduan.

.....

TXOMIN. Irekin jokatzeke  
Bildur alajaña !  
Peġo ziztriñ, ori dek  
Ori mingaña !

PELO. Aldakik oraindik zor  
Didaken ordaña :  
Txapela bete sagar  
Intxaur da gaztaña ?



Jokauréтик zaña  
Edozeñek aña ;  
Arotuz españa  
I beti bikaña...  
Jokoan bein ere ez aiz  
Iristen baña.

TXOMIN. Berogi jartzen ba-dek  
Txomiñ'en bařena  
Laister ikusiko dek  
Bere kemena.

PELO. Ba'zekiat (neretzat  
«Asto» dek izena)  
Aberetasunean  
Nagusi aizena.

TXOMIN. Exkañu alena !

PELO. Maltzur bezterena !

TXOMIN. Ezetz esan dena  
Len esan dekena ?

PELO. Ez diat izan nai nik  
Astakirtena.

.....



Txapela kendu eta  
Batak besteari  
Eldu zion orduan  
Bořokalari.  
Ozte dana begira  
Zutela zaindari  
Laister zioten alkar  
Erantsi luřari.  
«Ik neri ? Nik iri»  
Ukabiřa saři,  
Biak gudulari  
Gogor ziran ari...  
Ba'zan antxe griņetan  
Indar ugari.

..... ..

Txomin txapeldun ařo  
Ta Peřo menpean  
Burutsik lotsagaři  
Danen auřean.  
Begietatik sua,  
Sua biotzean,  
Luřetik jeiki eta



Txapela jaztean...  
« Angelus » jotzean  
Biak burutsean;  
Gero jolasean...  
Eta bitartean  
Tuntunak txistu-txistu  
Enparantzean.

LOIDI'TAR PABEN.

\*\*\*\*\*



# Udazkeneko Abestia

## I

Goizian goizik, argitu gabe,  
bagoazi auzokuak,  
aldapa goiti, mendi goyara,  
nasiak gazte ta zañak.

Irazelayan, egun osoan,  
negurtzen geren indañak,  
neskatxak, baki ; bai ta metatzen  
euskaldun mutil azkañak.

Mando upen-ta gure aitona  
iritxi gaitu pipatzen.  
Laneko tresnak berak dakartzki ;  
(aise bai gaitu jañaitzen).

Amatxo ona etxian bego  
txeñi ta beyak bazkatzen,  
lañain ta barna garbitu ezgeroz,  
aurtxo seaskan loakartzen.



Iretze degu Euskal-erian  
aberpean eratzeko,  
beyak etzan-ta jar direnian,  
obeki lo egiteko.

Bai ta bordetan ardi gaxuak  
beroki gozo izateko,  
ōlo koloka ōlategian  
txitoen kabi'antolatzeko.

Ūri-aroan nekazariak  
sagar ta gaztaiñ biltzendu,  
ta arto (eguneroko ogia)  
Jankoiko onak laguntzen badu.

—Agur, amatxo, īlundu arte ;  
nere txoria, zaindu...!  
Ateratzian Miren alabak  
oyu garbian er̄an du.



## II

Mendi munotik agertzen dire  
Baztango erri ta auzoak ;  
xuri ta goñi, iduri dute  
udazkenaren loreak.

Maldako sasi ta elordigoñi ;  
oritzen asi bagoak ;  
gaztaiñ zugaitza adar biluxik,  
aitziak ebatsi ostoak.

Egotik aitze epel-epela  
egoerditan du ateratzen,  
goibel goñistek, sutan bezala,  
zeru eder du paratzen.

Eta orduan basa usoak  
ipar aldetik agertzen ;  
guk, ixtenpates lana utzirik,  
edertasunez aritzen.



Eskubian artu irateya ta  
iretze zarpa ezkeñian,  
zeru begira xoraturikan  
atseden on gaudenian,

lertxuñak miñe leño luzean  
igaro ziran aidian,  
erne lepome, kantaño anakak,  
danak mañaska aundian.

Miren gaztetxo abeslariak  
abotsa egin die biguñña :  
«Agur, Jinkoaren mirabe onak,  
agur usoa ta lertxuñña !

Jañraiki zaizte Belate aldera,  
urunago baita Iruñña,  
et'antxen, zeruko Eñregiññari  
dio zute nere eskumuñña...»

Udazkeneko aratsaldeak  
egalak laxter du biltzen,  
goizirik jende eñialdera  
begiak ditu ernatzen.



Iñunabañez mendi gibelean  
ilargi adarék agertzen,  
ta gero izaék zerua iluna  
zilár dirdiraz edertzen.

Zenbait mutil, an, gelditu dire  
artzayaren txabolian ;  
nayago dute gaba edeákin,  
loa egitea mendian.

Entzun nai dute, asi balira  
otsoak saingeka lezian,  
zakuá axatu, bazteák nasi,  
bildurík gabe aseáian....

Bestiak, beíz, bide osoan,  
alkar lotu ta, abestuz,  
irintzi, oyu ta alaitasunez,  
ilunbean ez izituz.

Eriko argiak urutiraño  
asiak dire argituz,  
txapela kendu otoitz intzagun,  
ilun ezkilak adituz...



Gure etxeko zar gorapean,  
 mastiaren itzelera,  
 udaro antolatzen du kabia  
 azpi xuriko iñara.

Etxerakoan amak eñan dio  
 atean zuelarik sañera,  
 txori polita egan indala  
 eñiberako aldera...

Negañez dago etxeko alaba,  
 naigabetuik besteak baño.  
 Zinez bai, egin dituen mañaskak  
 ez entzunik egundaño...

Iñera maite iges egatia  
 sartu biotzaraño,  
 eta Mirenen begi edeñetaz  
 jabetu da malkoen laño !

LAZKOZ'DAR XABIER.



# EUSKO-POEMATXOAK

**II'garen**

ZATIA



LEN-EUZKOTARĀ



# LEN - EUZKOTAÑA GAIA

Jainkoari laguntza-eske.

Lenengo Euzkotaña.

Goiko Jaunaren arnas sutua  
Betor nire biotzera  
Nire itz muñitzaz, Euzkadi zaía  
Bait-nator abestutzera.  
Eda itzatzu, Zuk, Jauna nire itzok  
Mendi, baso, uri muinera  
Oroka ostots izugaía  
Edatzen duzun antzera.

Aneika ta aneika dira urteak,  
Ene irakurle kuñunak,  
Txoko xar ontan bizi dirala  
Arterik gabe Euzkaldunak.  
Ordutik mendi-landak Euzkeraz  
Entzun dituzte jardunak  
Oen odola eztala nastu  
Baitioke jakitunak.

Lendabiziko Euzko-semea  
Gure mendi basoetan



Nola sartu zan ager nai nuke,  
launa lagun, bertsoetan.  
Ekin dezagun guk euzko-odola  
Daramagunok zañetan  
Gure aberi ta izkuntza ikasten  
Maite ditzagun benetan.

Lenengo Euzkotaña.

Aralar ganean sugea

Gizon jakintsu ta azkañak ezin  
Aztarna duten mendean  
Abere-eizean gizon trinko bat  
Ager da Aralar-gañean.  
Basurde-lañuz erdi jantzia  
Gezi-ontzia soñean,  
Besoaren lodiko gorosti  
Makila esku batean.

Mendi-gañera eldu daneko  
Arnaska gure eiztaria  
Kokotzpetikan ixurtzen zaio  
Tanta-tantaka izerdia.  
Tresnak luñean ezañi ditu  
Makil ta gezi-ontzia  
Ta azkonaz ilda bizkañ-gañean  
Zekañen basauntz guria.



Mendi-egian taketx egiñik  
Arnasa luze bat joaz,  
Kokotz-azpiko izerdi zirindak  
Legortzen ditu besoaz.  
Baso beltz aiei begira dago  
Begi atsegin gozoaz,  
Basurde mentsik ez baitu izango  
Baso aietan iñolaz.

Garaikaldean begiztatu du  
Arkaitz bizian zuloa...  
Aitzin-aldea babestu eta  
Aterpe egoki askoa.  
Besterik bage zuaitz enbor bat  
Ekartzera ba-dijoa  
Bizkar-gañean darama arizko  
Aizkora zakar sendoa.

Zulotik urbil an arkitu du  
Enbor bat izugaria  
Baso artako Basajaun batek  
Erdibitutzen asia.  
Iru ukalditan ez zualako  
Asto ark autsi guzia  
Aúrez ager zan mendi-gañetik  
Aranoxe jaurtikia.

Bañan txit lasai aizkolaria  
Bertara eldu danean



Suge aundi bat bildua dakus  
Enbor zaíaren gañean  
Buruá lerdén, begiak ñir-ñir,  
Mizto beltza dardaíean  
Zaíapastaka zulorantz doa  
Igesi lipar batean.

Etzan iñolaz aizkolaria  
Nolanai bildurtzen zana,  
Saíeran zala ikus zuanean  
Oldartutzen da arengana.  
Aí-mozkor bat iraitzi zion  
Sartuxe zalarik dana  
An utzi bear izan zuan ark  
Biuíketan buztana.

Enbor-gañean zutik jaírita  
Erdibitzeko asmoan  
Berealako dunbatakoak  
Asi zituan beingoan.  
Aren danbadak edatzen ziran  
Oíu-maíuka basoan  
Sorgin guztiak bildur oiuka  
Baitzeuden arkaitz zuloan.

Aren gogatsu aizkolaria  
Ari dala arazo onetan  
Ona, non goitik bera dakusan



Gizon aundi bat batetan,  
Iñe zakaña soina guztian  
Zain lodiak besoetan  
Gure eiztaria baño sei oñaz  
Luzeagoa benetan.

Éraldoi aiek bildurtu zuan  
Apur bat gure gizona ;  
(Gezi-ontzia uruti baitauka  
Nola jaurtiki azkona ?)  
Basauntzak baño oin ariñagoak,  
Ark dakar, ark ziztu ona  
Osto guztiak dardartzen ditu...  
Bai arnasaren sakona !

### Basajaun bat agertzen zaio

Basajauna zan... ziztuan  
Ba-zirudin zezen bat zala.  
Gelditutzeko besarka zuan  
Zuaitz baten geñi zabala ;  
Katazka lañi estuan  
Oñaz arotu du zotala,  
Zuaitz sendoa kulunkatu zan  
Ekaitzak jo ta bezala.

Año jasorik begiak,  
«Eup!» egin zion mintzo ozenez.



Dana ariturik aizkolariak  
«Eeee» erantzun zion beldufez.  
Beñiz basajaun aundiak  
Iru urats aurera eman ez :  
«Bertatik jafaitu bear diak  
Aizena aizela, nai ta ez».

«Atxoin zak apur batean»  
Esan zion basajaunari,  
«Mozkor au printzatzan detenean  
Bertatik nindukek bidari.  
Ots! i ere enbor-gañean  
Zankalatraba jañi ari  
Sartzik beatzak egur tartean  
Ba-duk noski indar ugari?»

Jauzi batean zan jañi  
Egur-gañean zankuluka.  
Amar beatzak sartu ta lañi  
Ekin zion indar-estuka...  
Baña, aizkolariak sañi  
Aizkora atera ezkutuka...  
Ta an lotu zuan erukigañi  
Beatzak arapatuta.

Oñu aundi bat jo zuan.  
Dardartu zan mendi guztia!  
Aren katazkak inka estuan!



Aren soinaren biuría !  
Bere armin ta amofuan  
Ozkaka autsi nai ildokia.  
Beinbitartean lauoin sutsuan  
Iges doa aizkolaria.

### Tartalo ta Tartaloetxeta. Efaztuna.

Ba'zijoan, ba'zijoan auñera su ta gar  
Basoetan barna beti, mendi-egi-zear.  
Arañoxe dira irixten arten garbi xamar  
Basajaunaren zinkurin orú eta negar  
Oraindik zuaitz-ostoaak dagite dar-dar-dar.

Bañan ontan eiztariak, ara bat-batean  
Ke-mordo beltza ikusi du mendi egalean  
Zer ote-dan jakin-miñez jo du zuzenean...  
Arkaitz zulotik irtetzen dala borboíean  
Añiturik ikasi du lasterka urbiltzean.

Uraxe zan, uraxe zan Tartaloetxeta  
Antxen bizi da Tartalo eizetik aseta.  
Ozkaka egiñak ditu aitzuloak, eta  
Ardi sail beltz-beltzaz dauzka geienak beteta  
Txuri danak jan egiten baititu éreta.

Antxen zegoan Tartalo goiko arkaitzean,  
Ortzaz gora lasa-lasa lo bete-betean.



Begi borobil goñizta kopeta aseñean,  
Zazpi oin jasotzen zuan bulaña arnasean ;  
Bi aste eraman oi zitun lo-aldi batean.

Bañan oin-otsa entzunik jañi zan atzañi ;  
Begi goñi aundi ura idekiz bildurgañi.  
Eiztaria ikusi du ta zutiturik sañi,  
«Nor aiz»—goitik egin dio bereala aldañi.  
—«Eiztari bat»—ark jardetsi beetik naiko lañi.

—«Ni ere alaxe nauk ba—, Tartalo'k esan zun.  
Nire etxea ta basoak, adiskide kutun.  
Eiztariantzat zabalik zeudek gau ta egun.  
Ator bada egun auxe ospatu dezagun,  
Biok ardi zaña janez, ardoaren lagun».

Zulorantz abitu ziren ba, bi eiztariak.  
Nausi-zantzura mañaka jo zuten ardiak  
Bañan sañeran Tartalo maltzur basatiak,  
«Rau» sendo lotu zizkion edez esku biak,  
Atarira jaurtikiaz ontziko geziak.

Eñaztun añaña bat aneka zañean  
Ba-zun gordea ta artuta an dator oldañean,  
Etzun txintik ark egiten aitzulo barnean,  
Bañan «EMEN NAIZ» oiuka asten zan lekorean.  
Eñaztun au sartu zion beatz-txikañean.



Bereala egin zion eizaren baikuntza ;  
Oso-osorik buñuntzian ére zun basauntza.  
Janaren xunkatzeko bi zagiren laguntza,  
Arek, arek egin zuan bikain oturuntza !  
Bereala ekin zion bertan lo-zufunka.

Lotan zeñaldo ikustean eiztari azkañak,  
Sutan ére zitun usu lokañi ta amañak.  
Irtetzeko egin añen indarka zakañak,  
Ezin irauli, ordea, ateko añi zañak,  
Ez baitziran aski zazpi gizonen indañak.

Artzen du arek ordun Tartalo'n buñuntzia,  
Eta sutan goritu dio mutur guzia.  
Bere añekin ba-doa bipil eiztaria...  
«Rau» indañez sartzen dio begitik burnia,  
Zar-zar-zar sardin zaña antzo éreaz begia.

Iraulka luñean, dana biuñitzen dala  
Jo du Tartalo zangañak alarao itzala.  
Ardi danak zuñunbildu ziran bereala,  
Otso gosea tartera sartzean bezala,  
Etzan aitzulo barnean katazka makala !

Oñuz ta mañuz sartu zan Tartalo bipiña  
Bañunban ardi-tartean gizonaren biña.  
Aren zalapartaotsak ! zer da ango iskamiña !  
Gizona an dabil, kirika, lañitua, ixiña...  
Orbel zuñunbildua antzo igesi-ardi-piña.



Ez zula arapatzen ardi tartean etsirik,  
Asaie bizian kendu du aia atetik.  
Gero bera atean jaia zan anka-zabalik,  
Apar beltz-beltza ixuriaz sudur-zulotatik,  
Kea dariola dauka begia oraindik.

Banaka ardi danai deitzen asi da batera.  
Maia joaz etortzen zaizkio auera.  
Ark ileetatik artu-ta sartuz ankartera,  
Banan-banan igoritzen ditu lekorera.  
Sai ustu bear du aitz-zuloa naiera.

Baian etzegoan noski lotan eiztaria,  
Tajuz eztali zun ardi-lafuz soin guzia.  
Jo du ukabilaz sartzera zijoan ardia,  
Ta ankartera sartu zan kokoriko jafia,  
Laster aski zan ardiak bezela iraitzia.

Ekin dio lasteraia azke sumatzean,  
Maldatan bera, muturak autsi beaean.  
Baian, ona, ezaztuna asten da bat-batean,  
«EMEN NAIZ, EMEN NAIZ» aldaika beatzean,  
Eta beatzetik ezin kendu zezakean.

Laster aski igaria zuan Tartalo itsutuak  
Iruzur egin ziola eiztari lotuak ;  
Bereala entzun zitun ezaztun-oiuak,  
Burundaban amildu zan... aren maia, uluak !  
Aren zaraka tarteko muturka estuak !



Eraztun-oiuetara doa zuzen-zuzen ;  
Eiztariarengana ari da, ari da bertatzen....  
Aren arnas-ots zakaía ba-dantzu ufen-ufen...  
Gañean du ogei urats ork egin baño len...  
Orduantxe asi zan lafitzen.

Artzen du inka laí artan luřetik aía,  
Eta bereala moztu du beatz-tikia.  
Aúfean zeukan osin bat sakona ta aundia,  
Araxe jaurtiki zuan beatz ebakia,  
Eta eraztun beřitzu ta salataria.

An dator Tartalo sutsu, malkařetan bera,  
Eriosuar luřintsu eldu da ertzera ;  
Itsu mustu artan pulunpa zan osiñera  
Ta aíi mozkoía bezela murgilduz barnera,  
Antxe izan zan aren biziaren bukaera.

*Epo batek Tartaloetxeta'ra eramaten du.*

*Geřikoa. Biraua.*

Palastaka gelditu  
Ziran ur garbiak.  
Biotza taupadaka  
Dauka eiztariak.  
Mendi-egi-egian  
Ardi-txintxařiak...



Mañaka itun jo dute  
Tartalo'n ardiak.

«Naiago nuke orain,  
Zion eiztariak,  
Gaña artua ba'neuka,  
Igoak sasiak...  
Jaberik gabe daude  
Tartalo'n ardiak ;  
Laster bildu nezazke  
Zulora guztiak ».

Au esan bezin sañi,  
Ona, auñe-auñean,  
Gizon motx-motx, ñiki bat  
daku bat-batean :  
—«Aizak; igo nai al duk  
Gora oldañean ?»—  
Arek galdetu zion  
Par-muñi antzean.

Baietz, berealaxe  
Besteak erantzun.  
—«Bañan, oñetarako.—  
Ark beñiro jardun.  
—Gauz bat jantziko duken  
Auñez jakin zagan...»  
—«Ori bakaña ba-da  
Bai-bai»—jardetsi zun.



Ta itxiriki batean  
Tximist-egoetan  
Biak arkitu dira  
Tartaloetxeta'n.  
—«Atxoik emen apur bat»—  
Esan-da batetan,  
Epoa izkutatu zan  
Arkaitz zuloetan.

Begiztatu zituan  
Azkar eiztariak  
Inguruko lu'ralde  
Baso ta mendiak...  
Ma'aka bat iñun ez ;  
Ixil txintxa'riak...  
Zer egin ote-dute  
Tartalo'n ardiak ?...  
Ontan, gizon t'ikia  
Agertuz ostera,  
—«Ge'riko au oto ta,  
Oa arin eizera...  
Biltzak ge'rian eta  
Iru egunera,  
Zenbat eize egin duken  
Ator esatera».

—«Zertako dut ge'riko  
Zar ori soinean ?»—



Bere Baitan zion ark  
Epoa itzaltzean.  
Aritz mardo-mardo bat  
Zeukan aitziñean,  
Ta arixte bildu zion  
Barano danean.

Lotu ba-dio lotu  
Aitzari goñian,  
Asi da txinpartaka  
Su ta gar bizian.  
Eztanda bat entzun zan  
Eroen azpian...  
Ta amil-zuloa agertu  
Aitzaren tokian.

Beñiz zulo artatik  
Irten da epoa,  
Orla mintzatu zaio :  
—«Kaiku zar astoa,  
Zergatik moztu idaken  
Lengoan besoa ?»  
—«Nik besoa iri moztu ?  
Ago ixil, zoroa !

—«Aralar'ko gañean,  
Ez al duk gogoan



Iñork ik jo dukenik  
Añiaz zuloan ?...  
—«Usu zulora sartzen  
Zalarik lengoan  
Suge bat jo nian bai  
Izipu-ondoan »...

—«Etzan ura sugea  
Neu nintzan, kaikua !  
Ona nola daukatan  
Besoa moztua.  
Basurde-ortza daukak  
Lepoan lotua !...  
Bestela, betiko itzan  
Gaurkoan galdua !

Birau bat botako dit :  
Kaiku ez bestena !  
Ire endan izango duk  
Gaurtikan eřena,  
Besomotz, itsu gogor  
Ezkel ta kirtena ».  
Au esanik, zuloan  
Sartu zan zuzena.



Basurde-eizea,

Aralar gañean

Tresnak bildurik, basurde-ixian  
Laster eiztari zangañak,  
Utzi zituan ainbeste armin  
Egaritako baztañak.  
Berealaxe arkitu zitun,  
Ain ditu begi azkañak,  
Aritz-oñean basurdearen  
Ezkur-janeko aztañak.

Etzala uruti iñolaz urdea  
Ark igari zuanean,  
Arkaitz ta sasi danak miatzen  
Asi zan egiñalean.  
Alako batez, aditu ditu  
Zurunka otsak uréan,  
Ta an arkitu du zeñia lotan  
Zeñaldo sasi beltzean.

Biotz-aldera jaurtiki zion,  
Indar guziaz, gezia.  
Puñustakoan mañuz jeiki zan  
Asañe sutan zeñia.  
Azkona agiñaz atera zun da,  
Miturka urátuz sasia,



Igesi doa, zaañan ixuriz  
Bidean odol goñia.

Odol atzatic artez zijoan  
Eiztaria arnas-albetan,  
Atsedeen gabe, beti auñera  
Malda-bera ta aldatzetan.  
Izerdi-patsa, keezko-arnasa,  
Oñak beñiz odoletan,  
Gelditu gabe jañaitu zion  
Iru bat ordu luzeetan.

Aizpe batean basurde zaña  
gelditu zan unatua.  
Bi aldetara kezkak astiro  
Igitzen zuan burua.  
Mingain lakañaz milizka oi zun  
Aldiz saiets zauritua,  
Odol goñiaz bustia zeukan  
Sabel-azpiko lañua.

Artez aizpera, zañapastaka  
Or eldu da eiztaria,  
Esku batean iñoiz ere uzten  
Ez dun gorosti lodia.  
Sumatu baitu... usu kokoriko  
Jañi zitzion zeñia  
Burua lerden, eztu mizkatzen  
Len-antzo azkon-zauria.



Eiztariak urdea ikustean  
Erasotzeko gerturik  
Makil sendoa zearka artu-ta  
Zai jaí zaio zut-zutik.  
Kuínka urdeak, eriosuar  
Eraso du aitzulotik  
Aíi mozkoía oírelaxe da  
Iraultzen malkar goinetik.

Aldameneko zuaitz-tantaiai  
Ziíndak kenduz aginka,  
Urde zakaía alderatzen zaio  
Gurgurka ta zinkurinka.  
Yo du makilaz kaskezuíean  
Bost oin urunduz pírinka ;  
Eiztari itsua, lipar batean  
Itxasten zaio zotinka.

Bien artean zan gudaketa.  
Aien aztalkak luíean !  
Sasipe-gora artu zun urdeak  
Gizonarekin batean.  
Idoi sakon bat antxen izaki  
Garaiko zulogunean,  
Íriz araxe murgildu urdea...  
Gizona amoíuz ertzean.

Plazta-plazta ura leiaz edaten  
Asi da osin barnean,



Odol-jarioz goñiztatzen du  
Ura barano danean.  
Ez zun atsedean astirik izan.  
Eiztaria bapatean  
Jauzi bizkoñaz jañi zitzaion  
Zankalatraba gañean.

Eltzen dio bi belañitatik !...  
Indarka zeñi zitala !  
Urpean sar-azi nai mutuña,  
Ito zedin bereala.  
Aien katazkaz, erauntsiaz lez  
Palastaka idoi zabala ;  
Zeñi-arnasaz bor-bor-bor dago  
Irakin ba'lu bezala.

Eriotz-inka lañitsu artan  
Iraulka zan azpikoa.  
Iraulpen artan « plunpa » uzkaili-ta  
Murgildu zan gañekoa.  
Loiaz bete zan ur-gain guzia.  
Ura ango zuñunbiñoa !  
Ango naspil ta zalapartotsa  
Ez zan ez gozo-gozoa !

Bazijoan igeri zeñia  
Atañapuzka idoñera.  
Gizona ere usu atera zan



Urpetik osin ertzera.  
Makila atzi-ta, luñintsu ketan  
Oldartu zaio bidera.  
Yo du muñetan zeña ateeran  
Ta an eñoiztu da luñera.

Gure basurde-zaleak antzo  
Aizez anpatuz bulaña,  
Bost bider jo zun gezi-ontzitik  
Ateratako adaña.  
Uñena beñiz indar guztia  
Jo zun iñintzi bakaña,  
Ta exeri zan zeñi-gañean  
Eiztari bizkor zangaña.

Mari' n agerketa ta agintzak.

Euzkadi eta lenengo Euzkotarak.

Oparia.

Lasai atsedean artzen ba'zegoan  
Eiztari jatoña mendi-kaskoan  
Ta bat-batean suzko itai bat ikusten du  
Ager dala egoan  
Ta buñunba-otsaz sartzen beingoan  
Goraxego ageri zan zuloan.

Jakin-miñez zer sartu dan barnean  
Eiztaria ba-doa lasteñean...



Ure-mataxa adaretan ta zankuluka  
Aari baten gañean,  
Andre apain ta eder bat atean  
Ikusi du ari dala ardatzean.

« Nire seme kutun ! etoñi ari... »  
Xaloki esan zion mutilari.

Ez beldur izan, maitea, urbil adi, ni nauk  
Ire Jainkesa Mari.  
Atr, muin egiok ire amari.  
Nik egingo dizkit ontarte ugari.

Urbildu zitzaion mutil mazala,  
Oñean muin-egin zion apala.  
Jeiki zan Mari, ta an doa zulo barnera  
Aize-izpi bat bezala  
Nexa eder bat eskutik duala  
Gelgñi agertu zan bereala.

Ona exka au, agitz maitagañia,  
Nik irtzat berexiki azia  
Auxe izang duk lan, neke, samín guzien  
Pe atsegingañia  
Ludian esterik ba-da garbia,  
Etxekoi maratza ta argia.

Exeri-ara zitun luñean,  
Bata bestren aldamenean.



Oi zuan bezela, bera ere exeri zan  
Aariaren gañean  
Ta ufe-ariaz irun bitartean  
Orela asi zitzaien jardunean.

«Efi bat nai dut nik, nire-nirea,  
Zindoa, deuna ta Jainkozalea,  
Oitura on ta garbiak, guztiz alia,  
Jakintzaren jabea,  
Kementsua, ilezkoia ta trabea  
Ludi guzian berdinek gabea.

Zuek nai zaituztet, ene naiteak,  
Efi oren guraso ta iraslex.  
Ni izango nauzute Jainko soil ta bakaia,  
Ez ar, ene gazteak,  
Atzeriko jainko-aizun dingeak,  
Niretzat azi itzatzute smeak.

Ona baso, arkaitz eta mendia  
Aruntzago itxaso ta zaldia.  
Danak zuentzat baitauzka ortxe nai dut nik  
Nire efi berexia.  
Zuena dezute ori gura  
Zabaldu ezazute or zia.

Iñoiz ez dute ementzeritak  
Oñik sartuko; or bitaude malkakak



Begira ; eztu beñere zuina gainditzten  
Itxas aro zakarak

Nere gudari jator eta azkarak  
Emendik zaituko ditu baztarak.

Agitz naasi aeren enda guztiak,  
Garbi iraungo du Euzko-odol goñiak.  
Iraungo du zuen ele gozoak, zutik  
Dauden arte mendiak.

Baso ortan, ene aur maitatiak,  
Beti joko dira euzko-irintziak !

Bañan, ukatzen ba-nau nire eñiak,  
Ez ditu izango nire soroskiak.  
Eta bertatik saldoan sartuko dira  
Atzeñitar guztiak.

Ezin jasoz aien kate lodiak...  
Moñontzan ibili bear nausiak !

Ixilduko da Izkuntz zoragañia.  
Mendian ezta entzungo ifintzia.  
Aien ele mordoloak aldatuko du  
Besterik zan eñia.

Non da, non da lengo enda garbia ?  
Oitura on, izkuntza ta aberñia !

Zuen oben eñuz, ene kuñunak  
Eldu da'dira orlako egunak,



Otoi egin ; bidal dezan azkatzaile bat  
Zuen Jainko aldunak  
Ta entzunik zuen otoi-jardunak  
Autsiko dizkitzutet kate-estunak.

Ona, Euzkadi, zuen aberia.  
Ona lenengo Euzkoter sendia.  
Ona Mari zuen Jainko soil ta bakaña...!  
Guztiz maitagaña !...»  
Ta itzali zan Mari txuriz jantzia...  
Ta arekin batera adardun aaria

Bi gazteak bakañik gelditzean,  
Igeska, baso-bildotx bat aurrean...  
Jaurtiki zion azkona Euzko-eiztari  
Jatoñak bapatean.  
Artez sartu zion biotz-muinean,  
Ta an gelditu zan dardarka luñean.

Sutan eskeñi zion Jainkoari  
Euzkadi aberi-alde opari.  
Ortzeko laño mordoak bide ta toki  
Egin zien keari...  
Geroztik beti, Euzkadi'n Jaunari  
Eskeñi zaio bildotx edo aari.

JAKAKORTAJARENA'TAR TXOMIN.



AZKATASUN







# AZKATASUN

*Wer reitet so spät durch Nacht und Wind?*

(Goethe-Der Erlkönig).

1. — Egun batean itun nengoan,  
Itun saritan bezala ;  
Ta alaitzearen nere biotza  
Uxatzen odei zitala.
2. — Etxea utzirik baso itzaltsurontz  
Arin abiatu nintzan.  
Suzko odeietan euzki epela  
Mendi ostean sartzen zan.
3. — Urats ariñaz ta gelditzeka  
Gero igo nintzan goi-gora,  
Galufetatik laister beñiro  
Jausteko, nork daki nora ?
4. — Pozarik, baña, ez nun arkitzen.  
Itun, artege, oldozkor,  
Ustekabetan idoro nintzan  
Basoz nenbilela atsalkor.
5. — Zabal-zabala zan baso ura ;  
Zabal bezin itzaltsua.  
Sasi-artean eta ilunpetan  
Nenbilēn aras galdua.



6. — Orduko gaua etofia zan ;  
Ta bere musu zurbilez,  
Agertzen ai zan geldi-emeki  
Ilargia, mendi-gañez.
7. — Bere argia, zilar motots lez,  
Jausten zan goitik luñera,  
Ostai-artetik nekez igaroz,  
Sartzen zan baso barnera.
8. — Aize sendoa gero jeiki zan  
Bere abotsa zoliaz,  
Eta basoko zoko guziak  
Bete zituan oíoaz.
9. — Abots latz arek bazirudien  
Eraldoi-abestelia,  
Batean lertzen diraden anei  
Ortotsen oío laña.
10. — Latzikara aundiz añas zurtua  
Nentzuan oskar uzu ura  
Eta aíturik nenkusan aizen  
Oldar eta abiadura.
11. — Indar aundiaz astintzen zitun  
Zugaitzen zubil sendoak.  
Austen zituen adar lodiak  
Sakabanatuz ostoak.



12. — Jasotzen zitun goibel lodian,  
Orbel ustelaz batera,  
Ta iráda ariñan ta txirimilka  
Zeramazkien auéra.
13. — Ordun, baturik indar guziak,  
Oju zoli bat ein nuan :  
« Aize zakar ta eáldoi oék,  
Zer bilatzen dek basuen ?
14. — Nai dek, agian, aritz sendo iek  
Eó-eórotik atera ?  
Zergatik ago amoátua  
Zauri-dun lunan antzera ?»
15. — Ta oó latz bat aditu nuan  
Ortotsa bezin aztuna :  
« Aritz-artean atzitua nauk.  
Nai diat azkatasuna !»
16. — Laíritasun bat asi zitzaidan  
Biotz erdian zizt-eiten :  
Zuaitz oitatik bat balerorkit,  
Aías galdua nengoen.
17. — Ariñeketan etera nintzan  
Iradu baso artatik.  
Ta aize zakaák zeáien beti  
Oóoka zuaitz azpitik.



18. —    Īlargo eder-zuri-aratzak  
          Dir-dir eiten zun ortzean.  
          Nere laistera jaraitu nuan  
          Basoa utzirik atzean.
19. —    Mendi egalez jexten nintzala,  
          Dantzut zarata gogora.  
          Nere onetan edatzen dakust  
          Amil ilun-zemakora.
20. —    Nere laistera jaraitzen det, ta  
          Jautsi amilondoraño.  
          Īlargiaren argi naroa  
          Ez zan baientzen araño.
21. —    Bañan ikusi al nuan aisa  
          Urolde sumim-sumiña,  
          Arkaitz-artean ongi ertsia  
          Jexten zala arin-ariña.
22. —    Bere ur nasiak, oldar gogoraz,  
          Aitzeko uberkan zerorzen,  
          Bizkar borobil-zemagaña  
          Beti aunditzen ta aunditzen.
23. —    Aitz gogoretan egiñalean  
          Zarast-egiten ari zan ;  
          Eta gañeko apar ariña  
          Odolezko zirudian.



24. — Bazteretako adar batzuek,  
Ariturik balegoz lez,  
Makurtzen ziran ukitzeraño  
Ur ezkaitz ura ostoez.
25. — Bañan beronek adaretatik  
Erauzten zitun oroka,  
Laister, ordea, jaurtikitzeko  
Amuñuz arkaitzen aurka.
26. — Uroldearen amuñu aiek  
Ikaratua nendukan.  
Bildur-mamua buru gañean.  
Zebilkidan so zibukan.
27. — Zenbait tokitan uberka latza  
Zabaltzen zan bat-batean ;  
Eta uroldea bertan asten zan  
Baretzen osin batean.
28. — Laister, ordea, len bezin uzu,  
Len bezin zaratatsua,  
Tuñusta aundian zeroñen beñiz  
Aitz-artean amildua.
29. — Bere oskaña, eten gabeko  
Oroa bezin laña,  
Beti dirauen, akitzen ez dan  
Ortots latz bati irudia.



30. — Nere kemena beñiz baturik,  
Oju lañi bat dagiot :  
« Urolde ori, zergatik ago  
Oñen aseñe ? »—dasaiot.
31. — Eta belaxe, amilondotik  
Datorkit oño aztuna :  
« Uberka ontan beti ertsia,  
Lei bat det : azkatasuna ! »
32. — Orduko ilargi garbia zagon  
Ortzalde garaienetan  
Eta gauaren ezetasuna  
Sartzen zan nere ezurñetan.
33. — Samintasun bat nere biotzan  
Gelditzeka ari zan sartzen.  
Urolde-ertzean itun-itunik  
Gelditu nintzan gogaltzen.
34. — Leize artatik, nolapait ere,  
Nai izan nuan atera.  
Ta lipar artan zaldi bat dakust  
Zetoñela edatera.
35. — Eluñá bezin zuri-zuri zan ;  
Belañiak zut-ariñak,  
Anka-me, bañan añas sendoak,  
Laisteñerako egiñak.



36. — Urbil nintzaion eta nere eskuz  
Zur da azkarki atzi nion.  
Jauzi batekin bizkañan igo  
Ta aztalak josi nizkion.
37. — Abere urenak jauzi-ein zuan,  
Tximistak joa bezala,  
Ta abiatu zan; laister bizkoñan,  
Oldozkun lez zijoala.
38. — Zuaitz sendoak irada gaitzan  
Mamuak lez zigarozen  
Ta uroldearen oño iraunkoía  
la ez nuan aditzen.
39. — Mendi egalez zigoen bide  
Zar ta erdi atzenduan  
Sartu zan sutsu nere zaldia  
Bere laisterkete uzuan.
40. — Lepo izerditsu-edatuari  
Añas azkarki itxekia,  
Ta nere eskua zurdileari  
Iñal guziaz atzia,
41. — Mauma tzar batek jabetua lez,  
Banoa gora ta gora.  
Nora ordea ? Laister gaitz onek  
Nora naramake, nora ?



42. — Odei-zerenda baten atzean  
Ezkatatu da ilargia.  
Noizbeinka dantzut nere al boan  
Ontzaren oju zolia.
43. — Bañan zer dira zoko ilun artan  
Agertzen diran txindiak ?  
Esan liteke aizaro-pean  
So dagozkidan begiak.
44. — Egiñal lañi batez lortzen det  
Zaldia gelderaztea,  
Ta geratzen naiz ikaratusa.  
Zer dakust, Jainko maitea !
45. — Zubil urtetsu baten zuloan  
Ontza zeken bat zegoen.  
Begi izkidunak zoko ilunean  
Oker diztiatzen zuten.
46. — Bere atzapar latz-zofotzetan  
Uretxindor bat bazuan  
Ta moko okeña odol goñiaz  
Zikindua ikuslen nuan.
47. — Txori gaxoa, miñaren-miñez,  
Zegoen txio-txioka.  
Bular txikaña zarastatua,  
Biotza ageri taupaka.



48. — Zalditik jautsi ta jaurti nion  
 Aíi bat iñal guziaz ;  
 Bañan ukitu baño len, ontza  
 Itzuri zitzaidan egaz.
49. — Ixil-ixilik ayenatu zan  
 Lapur jazarkatua lez,  
 Zulo ilunean utzirik bere  
 Aíapakia íltzer miñez.
50. — Nere eskuetan, áreta aundiaz,  
 Uíretxindoía artu nuan.  
 Bere eztaíiko adia ituna  
 Nolako miñaz nentzuan !
51. — Oñaz laíiak dardarazten zun  
 Osoz bere gorpuztxoa.  
 Txori gaxoa ! Oraindikan bein  
 Ideki zun mokotxoa.
52. — Ta úrezko lumak iñaíosi-ta  
 Azkeneko oldar batean,  
 Il zitzakidan, ura bai miña !  
 Nere esku oken artean.
53. — Ez ongi-aldi nabari batek  
 Napurtzen zuan osoro  
 Nere izatea. Zaldi gañera  
 Jauzi dagiot beíro.



54. — Ta beásten det nere laisterá  
 Len baño erokiago.  
 Lauoinka doa nere zaldia  
 Gero ta oldarkiago.
55. — Laouoinka doa nere zaldia  
 Bere larua oketan  
 Ta luínezko zurúztak ziltzen  
 Zaizko sudur zabaletan.
56. — Lauoinka doa nere zaldia  
 Oldozkun bezin ariña,  
 Lur gogoáean josten duala  
 Bere ointoko burdiña.
57. — Lauoinka doa nere zaldia  
 Bere laisterá gogoáan,  
 Ta apatzen oskar izugaáiak  
 Durundi dagi aitzetan.
58. — Ta ango ixiltasun agurgaáian,  
 Arkaitzez-arkaitz doala,  
 Bein ta amaika aldiz diola uste det  
 Lekaro artan oneia :
59. — « Lakemen edeá,  
 Zatozkit lenbailen.  
 Azkatu, azkatu,  
 Lakemen, lakemen ».



60. — Nere zaldia, lauinka beti,  
Abiatu zan su ta gar  
Meaka baten. Ilun zegoan ;  
Oro zan ari ta legar.
61. — Aitzinxeago, bide zakaía  
Tolezten zan eskubira,  
Ta ara jo zuan nere zaldiak,  
Beti lauoinka goitira.
62. — Ukondo ura oñazture bat  
Bezin arin igaro-ta,  
Top ! bat-batean geldi zitzaidan,  
Luíean oñak josi-ta.
63. — Maturía gora, lepoa zut-zut  
Eta pitin bat atzera ;  
Anka sendoak luze-luze einta,  
Aíantzezkiean antzera.
64. — Igige-zurún geldi zitzaidan.  
Beárik buru jasoá ;  
Laister-oldaíez, arkaitz zoíotzen  
Aurka bestela banoa.
65. — Lotu nintzaion, iñal guziaz,  
Amilan eror ez nendin  
Beaíezkoa zan ortarako  
Lepoa zut egon zedin.



66. — Ura laía ! Bide zakaía  
 Zagon tupustez moztua,  
 Ta oinkada bat aitzinxeage  
 Nenkusan amil-burua.
67. — Arkaitzen karel zoíotz ta izuíaak  
 Jexten ziran sakonera,  
 Gerturik beren ortz laíekin  
 Zerorkiena uíatzera.
68. — Lengo izualdi ura igaro-ta,  
 Begitzea zabaldurik,  
 Ikuskin eder ta aígaía  
 Ikusi nuan gelkurik.
69. — Antxe zegoen itxas laía  
 Arkaitz gogoíen onean ;  
 Antxe zegoen, neurge, ortzekin  
 Beti musuka uíunean.
70. — Uste izan nuan baretasunik  
 Zabaltze artan bedere  
 Narkikeala. Ez zan, ordea,  
 Baretasunik an ere.
71. — Ortze zabalez gau-bakalduna  
 Geldiki jexten zijoan.  
 Laister letzake, neschutz lotsor lez,  
 Itxasoaren alzoan.



72. — Odei lodi bat uřatu-ata,  
Zuřuztaka ixuri zuan  
Bere argi ikuz-zilařezkoa  
Itxaso asaldatuan.
73. — Ordun ikusi al izan nuan  
Etortzen, beronen gañez,  
Uiñen leřoak, laister gogořan  
Bazteřeko aitzen aurkez.
74. — Mcndiak bezin zerdenak ziran  
Ta arin ertzerontz zetozen,  
Beren kopetan galdur zuri bat  
Zeramatela irakiten.
75. — Nere zaldi izuarena baño  
Bizkořago zan biziki  
Beren lauoinka. Ta ozantzaren  
Oskararekin, oldarki.
76. — Amiltzen ziran arkaitz gañera  
Elkar oldartzen zutela,  
Luna goseti-suminarekin,  
Bi mendi-leřo bezala.
77. — Bañan arkaitzen ortz zořotzetan  
Eřuki gabe uřatuak,  
Itzultzen ziran, sumin gogořaz,  
Uin izugaři-uzuak.



78. — Itxas-azala ayenatzen zan  
 Une batean apaéz.  
 Ta nork lezake augo zarata  
 Itxasoaren oskarez ?
79. — Éraldoi laíi-zaurituaren  
 Ots gaíatza ulertu nuan.  
 Azkatasuna-biía zebilen,  
 Aíesirik nai ez zuan.
80. — Bañan tupustez iduritzen zait  
 Dardarka dagola luía.  
 Goiko Jaun ona! ezufetaño  
 Sartu zitzaidan bilduía.
81. — Nere zalditik jauzi egiñik,  
 Belauniko jaíi nintzan ;  
 Nere eskuekin ukitu nuan  
 Ta ene, bai, egia zan !
82. — Eskuz ukitu dezute noizbait  
 Joale bat miaz joa ?  
 Dardar arin bat eskupe edatzen  
 Menasta osoaz doa.
83. — Alaxen, bada, oartu nintzan  
 Lur done aren ikaraz.  
 Azkatasun leiz eíi oso bat  
 Zebilen, ene, dardaraz.



84. — Azkatasuna, goiko alaba  
Islatsu-garden-gardena ;  
Gizadiaren edergalurik  
Uren, eder ta aundiena !
85. — Azkatasunoi, euzki bezala  
Gizon-bekoki gañean,  
Argitzen dezue erlantz biziaz  
Bere bidea luñean.
86. — Abere gañez jasotzen dezue  
Goiko mañara gizona :  
Zuregatik au izaten baita  
Naiz gaizto edo naiz ona.
87. — Ez zera inñondik lizunkeritan  
Dabilen emagaldua,  
Neskutza baizik txukun-txukuna  
Jantzi zuriz apaindua.
88. — Gotzon garbia bezin edeña  
Zure irudia ikusirik,  
Gurtzen zaituzte Jainko bezala  
Zure edeñez zoraturik.
89. — Bañan Urtziñen askuetatik  
Atera zeran ezkerro,  
Bere auriñean makurtu bear  
Zure burua apalkiro.



90. — Gizona, baiki, galdu deiteke  
Zure lofatza jafaitzen :  
Zure musuko argitasuna  
Baidu-ta zorabiotzen.
91. — Eguzkiari auéz-auéz so  
Dagionaren antzera,  
Zure irudia jaraika beti  
Doakio guzitara.
92. — Ordun ausarki bere kopeta  
Donokira jasotzen du  
Ta, gokaiztoa bezin dongea,  
Aroki ots egiten du :
93. — « Ez det onartzen jabetasunik ;  
Ni naiz neronen jabea.  
Non ago, bada, goiko Urtzi ori ?  
Ez nauk ire mirabea ! »
94. — Une bateko ustekeria !  
Egun batean, gaizoa !  
Urtzi auéan aurkituko da  
Zeroén gogo aroa.
95. — Eta azkatasun-euzki edeá  
Itzaliko da betiko.  
Nai izan ta ere alik ez dezu  
Ordun gauz onik eiteko.



96. — Azkatasunoi, goiko alaba  
Eder-eder ta islatsua ;  
A, zenbat aldiz, gizonen griñaz,  
Zakusagun lizundua !
97. — Lore txukuna bezin aratza  
Zeran azkatasun ori,  
A, zenbat aldiz biurtzen zeran  
Loietan datzan zitori !
98. — Gizadiaren gaiztakeriak  
Zure jantzia, ondikotz,  
Zikindu zizun, ta bekokia  
Lañotu ludiko lertzoz.
99. — Gurutz Deunatik ixuritako  
Odol garbi ta bikañak  
Beñiz zuritu egin zizkizun  
Zure soñeko apañak,
100. — Ta jeiki ziñan, txukun ta eder,  
Argizko gotzon antzera,  
Ta zure egalak zabal eginta  
Bazter batetik bestera,
101. — Aien gerizpe ta bapesean  
Apetaldu zenituan  
Gizon guziok, oñoak bere  
Txitoak lumatar-tean



102. — Zaitzen ditun lez. Ta ordudanik  
Oro izan giñan anaiak :  
Uře-seaskan sortutakoak  
Ta eskarien semiak.
103. — Odol ber-beraz gizon guziok  
Izan giñan erosiak  
Ta egun batez goiko ateak  
zitzaizkigun idekiak.
104. — Zein kazkaía dan gizadiaren  
Izakera auxe, ordea,  
Beti baidabil, katamotza lez,  
Ezin asetuz gosea
105. — Gizon guzien anaitasuna  
Deungeki ostikaturik,  
Eri batzuek jeikitzen dira  
Bestiez jabetu nairik.
106. — Odolezko ibai lazkaía  
Ludi onen edestia.  
Eri aroek artan nai dute  
Ito erazi txikia.
107. — Urtzi Altsua, eri gaxo au  
Atera zazu lenbailen  
Bein jaurti zuten amiltegitik  
Beriz zoruntsu izan daiten.



108. — Eta entzun, i, goiko alaba,  
Azkatasun bikain ori ori ;  
Donokitako lilitegitan  
Irazandako zitori

109. — Ator ire egaz Abeñiaren  
Bekokia laztantzera ;  
Ta uso zuri lez, gero oakio  
Magalean ezartzera.

TAPIA-PERURENA'TAR ALEXANDER.

\*\*\*\*\*



# Arkibide - Indice

## AURE-ITZA - INTRODUCCION

	<u>Pág.</u>
Arana'tar Yon. — «Bedoña'tar Yokin». — «Loramendi Olerkaria» . . . . .	IV

## OLERKIAK-POESIAS

### I'go. Zatia

Ba'untza-Leyoan (Maite Kanta). . . . .	2
En la ventana de la conciencia (Canción del amado). . . . .	3
Maite-Eziña (Alkarizketan). . . . .	20
Maite Damu . . . . .	25
Mendi Goi-Goyan . . . . .	28
Zorigaitz eta Itxaropena. . . . .	34
Txapela . . . . .	37
Udazkeneko Abestia. . . . .	43

## EUZKO-POEMATXOAK

### II'go. Zatia

Len-Euzkota'ra Gaia . . . . .	51
Azkatasun . . . . .	77



# Publicaciones de Euskaltzaleak

## TEATRO

**Bost-Urtian**

Toribio de Alzaga.

**Ostegun-Gizena**

Antonio de Labayen.

**Sorgiñak**

Barbier-Manuel de Le-  
cuona.

**Egiazko Jainkoa.—X.**

## POESIA

**Poesías Vascas**

I.—Certamen de Ren-  
tería. 1930.

**Paesías Vascas**

II.—Certamen de To-  
losa. 1931.

**Poesías Vascas**

III.—Certamen de  
Hernani. 1932.

**Poesías Vascas**

IV.—Certamen de  
Urretxua. 1933.  
(En prensa).

## ACCION EUSKERICA

**La Muerte del Euskera**

J. de Aitzol.

**Lucha de idiomas**

El problema escolar  
bilingüe en Euzkadi.



SANEURIA: 2,50

3